
JARDUERAREN MEMORIA

20

20

**KULTURA
SAILBURUORDETZA**

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLITICA LINGÜÍSTICA

**JARDUERAREN
MEMORIA**

**20
20**

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2021

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jauriaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke:
https://www.katalogoak.euskadi.eus/cgi-bin_q81a/abnetclop?SUBC=VEJ/J0001

Argitaraldia:	1.a, 2021eko iraila
Ale-kopurua:	150 ale
©	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa Kultura eta Hizkuntza Politika Saila
Internet:	www.euskadi.eus
Argitaratzailea:	Eusko Jauriaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Itzulpena:	Theniu
Diseinua eta maketazioa:	Theniu
Inprimatzea:	Eusko Jauriaritzaren Inprenta eta Erreprografia Zerbitzua
ISBN:	978-84-457-3603-6
Lege-gordailua:	LG G 578-2021

Aurkibidea

1.	KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILBURUAREN AURKEZPENA	6. or.	6.	ERANSKINAK	30. or.
2.	KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA	7. or.	6.1.	DIRU-LAGUNTZA DEIALDIAK	
3.	KULTURA SAILBURUORDETZA	8. or.	6.1.1.	Kultura Ondarearen Zuzendaritzaren diru-laguntza deialdiak	
3.1.	EGITURA		6.1.1.2.	Euskal Kultura Ondarearen zentroa	
3.1.1.	Kultura Sailburuordetza		6.1.1.3.	Euskadiko Artxibo Historikoa-EAH. IRARGI - Euskadiko Ondare Dokumentalaren Zentroa	
3.1.2.	Kultura Ondarearen Zuzendaritza		6.1.1.4.	Liburutegiak	
3.1.2.1.	Euskal Kultura Ondarearen Zentroa		6.1.2.	Kultura Sustatzeko Zuzendaritzaren diru-laguntza deialdiak	
3.1.2.2.	Museoen Zentroa		6.1.2.1.	Musika	
3.1.2.3.	Artxibo eta Ondare Zerbitzua		6.1.2.2.	Ikus-entzunezko ekoizpena	
3.1.2.4.	Liburutegi Zerbitzua		6.1.2.3.	Ikus-entzunezko garapena	
3.1.2.5.	Euskadiko Liburutegi Digitala		6.1.2.4.	Arte eszenikoen sustapena	
3.1.2.6.	Jabetza Intelektualaren Erregistroa eta Kultura Ondarearen Aholkularitza Juridikoa		6.1.2.5.	Arte eszenikoen ekoizpena	
3.1.3.	Kultura Sustatzeko Zuzendaritza		6.1.2.6.	Arte plastikoak eta ikusizkoak	
3.1.3.1.	Kultura Sustatzeko Zerbitzua		6.1.2.7.	Literatura argitalpena	
3.1.3.2.	Kultura eta Sormen Industrietako Programa		6.1.2.8.	Irudi sorkuntza	
3.1.3.3.	Kulturaren Euskal Behatokia		6.1.2.9.	Jaialdiak	
3.1.4.	Organo Kolegiatuak eta Beste Administrazio Atalak		6.1.2.10.	Kultura arloko publiko berriak	
3.2.	PATRONATUAK, ERAKUNDE AUTONOMOAK, ERAKUNDE PUBLIKOAK ETA SOZIETATE PUBLIKOAK		6.1.2.11.	Kultura sorkuntza	
3.2.1.	Patronatuak		6.1.2.12.	Sorgune	
3.2.2.	Erakunde Autonomoak, Erakunde Publikoak eta Sozietate Publikoak		6.1.2.13.	Bitartez	
3.3.	AURREKONTUA		6.1.2.14.	Alderdi politikoen fundazioak eta elkarteak	
4.	EGITASMO NAGUSIAK	16. or.	6.1.2.15.	Mikroenpresei zuzendutako ez ohiko laguntzak (covid19)	
4.1.	KRISIAREN KONTRAKO NEURRIAK		6.2.	DIRU-LAGUNTZA IZENDUNAK	
4.2.	SORKUNTZA ETA EKOIZPENA		6.2.1.	Kultur Ondarearen Zuzendaritzak emandako diru-laguntza izendunak	
4.3.	KULTUR ESKAINTZA		6.2.2.	Kultura Sustatzeko Zuzendaritzak emandako diru-laguntza izendunak	
4.4.	MEMORIA BIZIA		6.2.2.1.	Musika	
4.5.	GOBERNANTZA		6.2.2.2.	Ikus-entzunezkoak	
5.	EUSKARA ETA GENERO BERDINTASUNA	28. or.	6.2.2.3.	Arte eszenikoak	
5.1.	HIZKUNTZA BERDINTASUNA: EUSKARA		6.2.2.4.	Arte plastikoak eta ikusizkoak	
5.2.	GENERO BERDINTASUNA		6.2.2.5.	Literatura argitalpena	
			6.2.2.6.	Kultura eta sormen industriak (KSI) eta berrikuntza	
			6.2.2.7.	Hiriekin auzolana	
			6.2.2.8.	Erakundeak	
			6.2.2.9.	Bestelako sustapena	
			6.3.	SARIAK	
			6.3.1.	Kultur Ondarearen Zuzendaritzak emandako saria	
			6.3.2.	Kultura Sustatzeko Zuzendaritzak emandako sariak	
			6.3.2.1.	Ikusizko arteak	
			6.3.2.2.	Literatura sorkuntza	

1/

Kultura eta Hizkuntza Politika sailburuaren Aurkezpena

Bingen Zupiria Gorostidi

Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua

Bigarren urtez eman dugu argitara Kultura Sailburuordetzaren jardunaren memoria. Helburua 2020. urtean egindako ekimenak gardentasunez azaltzea eta zabaltzea da. Urtero egiteko konpromisoa hartu genuen iaz, jarraitasuna giltzarri baita, kultura politiketan bezala, haren inguruko datuen bilketan eta komunikazioan. Ordea, tamalez, gutxi izan du jarraitasunetik 2020. urteak.

COVID19ren pandemiak markatu du urtea. Osasun larrialdiak hankaz gora jarri du gizartea, gure ohiko bizimodua eragotzi du, giza kalte izugarriak ekarri ditu, bai eta kalte ekonomiko latzak ere. Egoerak bereziki gogor astindu du kulturaren eremua, bere aspektu guztietan: sorkuntzan, ekoizpenean, kultur eskaintza bideratzen duten antolamenduetan, eta publikoen beraren jokabideetan. Epe labur baterako uste genituen neurriak luzatzen joan dira, gaixotasuna mendeen hartzeko borrokan jarraitzen dugu 2021. urtean ere, testu hau idazten ari naizenean eta txosten hau argitaratuko dugunean. Larrialdiak noiz arte iraungo duen, txertoaren babes soziala noiz erdietsiko den, egoera larri honek zein ondorio utzi eta utziko dituen, ezinezkoa zaigu oraindik jakitea. Pandemiak, kulturaren beharra inoiz baino argiago ikusarazi duen aldi berean, kulturagileen biziraupena arrisku larrian jarri du. Kulturagintzaren aspektu profesionala izan da guztion kezka nagusia 2020an: sortzaileen biziraupena eta enpresa eta egituren jarraitasuna. Sektore publiko indartsu eta zabala daukagu herri honetan, arazo handiak

izan baditu ere, lanean jarraitu duena, eta, kasu askotan, sorkuntza eta ekoizpena sustatzeko funtsezkoa izan dena. Kulturaren ere, alor pribatuak sufritu du gehien, horien artean sortzaileek eta kultur industriek bizi izan dute estuasunik handiena, eta zuzeneko arteek eta jardunek, oso era berezian.

Kultura Sailaren politikak ere egoeraren larritasunari erantzun beharrak baldintzatu ditu, ezinbestean. Kultura politikak egiten jarraitzeaz gain, politika ekonomikoak egitera pasa behar izan dugu, eta beste sailekin lankidetzan, gainera: Lan eta Enplegu Saila, Ekonomia eta Ogasun Saila, Osasun Saila, etab. Ez da erraza gertatu, bistan da.

Dena den, COVID-19k agerian utzi du sektore moduan daukagun hauskortasuna, Baina, halaber erakutsi ere egin digu elkarlana ezinbestekoa dugula aurrera egiteko. Sail arteko komunikazioa eta ezagutza desberdinak partekatzea zentralak izan dira ekimenak eta laguntzak kudeatzeko. Era berean, erakundeen arteko koordinazioa eta lankidetzaren oso garrantzitsua izan da, eta etorkizunean ere hala izango da, sektoreari eta herritarrei erantzunak emateko modu koordinatu batean. Eta nola ez, sektorearekin harreman zuzenak edukitzea ere beharrezkoa dugu eta izango dugu Euskal Erkidego Autonomoa kultura lurraldea izatea ere nahi badugu.

Zailtasunak zailtasun, Eusko Jaurlaritzak kulturarako 2020rako aurrekontua eta programa mantendu ditu, deialdiak eta zerbitzuak larritasun egoerari egokitu dizkio, eta laguntza-

lerro nahiz programa bereziak abiarazi ditu. Horren berri eman nahi du txosten honek, argi eta zehatz.

2020. urtea, bestalde, hauteskunde urtea izan da eta, beraz, Legegintzaldi berri baten hasiera. Uztailean ospatu ziren hauteskundeak eta, irailerako, gobernu berria osatua zegoen. Sailburuak eta arduradun ia guztiak jarraitzen dugu lehengo eginkizunetan, sektoreekiko lankidetzan eraikitzen joan diren politikekiko koherentzia eta jarraitasuna ditugulako xede.

Ez nuke amaitu nahi eskerrak eman gabe Jaurlaritzako teknikarien lan-taldeari, egoerari egokitzeko eta kulturagintzari erantzun egokiak emateko egin duten ahalegin bereziengatik.

Esker beroenak, baita ere, HABOKA osatzen dugun euskal erakundeei: Aldundiei eta Udalei.

Eta bukatzeko, nire esker beroenak kultur eragile guztiei, euren ezagutza, indarra eta lana gizartearen eta herri honen garapenaren zerbitzura jartze arren.

Ez nuke amaitu nahi eskerrak eman gabe: hasteko, Jaurlaritzako teknikarien lan-taldeari, egoerari egokitzeko eta kulturagintzari erantzun egokiak emateko egin duten ahalegin bereziengatik; gero, oso modu berezian, HAKOBA KULTURA osatzen dugun euskal erakundeei: Aldundiei eta Udalei; eta, bukatzeko, nire esker beroenak kultur eragile guztiei, euren ezagutza, kemena eta lana gizartearen eta herri honen garapenaren zerbitzura jartze arren.

2/

Kultura eta Hizkuntza Politika Saila

2017ko 82/2017 Dekretuak finkatu zuen Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren sailen berrantolaketa jasotzen zuen 2016ko azaroaren 26ko 24/2016 Dekretua oinarri hartuta. Hauteskundeen ondoren, XII. Legegintzaldiari hasiera eman zitzaion, Gobernu berriaren antolamendurako, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren sailen berrantolaketa jasotzen zuen 2020ko irailaren 6ko 18/2020 Dekretuan oinarritu zen 2017ko 82/2017 zuen Dekretuak. Dekretu berria 2021eko hasieran argitaratu zen.

18/2020 Dekretuak honako egiteko eta jardun-arloak esleitzen dizkio: hizkuntza-politika garatzea, euskara sustatzea, ondare historiko artistikoa kudeatu eta babestea, arte eta kultura jarduerak eta horien zabalkundea, kirolaren arlokoak kudeatzea; komunikabide sozialei dagokionez, irratien emakida eta frekuentzien esleipena; sailari atxikitutako erakunde autonomoak, zuzenbide pribatuko erakunde publikoak eta sozietate publikoak zuzentzea eta baita legeek eta arautegiek ematen dizkieten beste hainbat ahalmen ere.

Betekizun horiei erantzun ahal izateko, 82/2017 Dekretuak zehazten du Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura honako hau izango dela: Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua (horren menpean izango dira Kabinetearen eta Gizarte Hedabideen Zuzendaritza, Zerbitzu Zuzendaritza eta Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritza); Kultura Sailburuordetza (bere baitan, Kultura Ondarearen Zuzendaritza eta Kultura Sustatzeko Zuzendaritza) eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza (Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritza, Euskara Sustatzeko Zuzendaritza eta Hizkuntza Ikerketa eta Koordinazioerako Zuzendaritza bere gain izango dituena).

82/2017 DEKRETUA, apirilaren 11koa, Kultura eta Hizkuntza Politika sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena 1968. 2017-04-21. EHAA 76. zk.

http://www.legegunea.euskadi.eus/webleg00-contfich/eu/contenidos/decreto/bopv201701968/eu_def/index.shtml

3/

Kultura Sailburuordetza

Kultura Sailburuordetzaren **jardun-arloak** dira, batetik, historia eta arte ondarea, museoak, liburutegiak, artxiboak eta jabetza intelektuala kudeatzea zein babestea eta, bestetik, arte eta kultura jarduerak sustatu eta horien hedapena bultzatzea.

3.1./ EGITURA

Kultura Sailburuordetzak, berari dagozkion egitekoak bete ahal izateko, bi zuzendaritza dauzka mendeian:

- **Kultura Ondarearen Zuzendaritza**
- **Kultura Sustatzeko Zuzendaritza**

3.1.1.

Kultura Sailburuordetza

2020an, Legealdi berria abiatu da. Hauteskundeak ekainean ospatu ziren eta gobernu berria irailean osatu zen. Atal honetako zerrendetan, aldaketak gertatu diren kasuetan, irailera arte jardunean egon diren karguen izenen ondoan "iraila arte" adierazten da eta gorritz azaltzen dira irailetik aurrerako kargu eta arduradun berrien izenak. Teknikarien lan-taldean hauteskundeek ez dute, jakina, aldaketarik ekarri.

ANDONI ITURBE AMOREBIETA
Joxean Muñoz Otaegi (iraila arte)
KULTURA SAILBURUORDEA

ELENA ERASO ZUBIZARRETA
Itziar Sagarna Mendia (iraila arte)
IDAZKARIA

JOXEAN MUÑOZ OTAEGI
Imanol Agote Alberro (iraila arte)
AHOLKULARIA

Kultura sailburuordearen **betebeharrak** dira, besteak beste:

Kultur arloko jardun-politikak lantzea eta sailburuari proposatzea. Horietan oinarrituta, plan estrategikoak eta urteko jardun planak landu beharko ditu. Sailburuordetzaren jarduerak programatu, kudeatu eta horien garapena gainbegiratzea sailburuordearen egitekoa da, halaber. Bere eskumenen baitan, azterlanak eta txostenak egitea eta azterlan-txosten horiek aztertzea. Sailburuari asistentzia tekniko ematea eta xedapenentarako proiektuak proposatzea.

Sailburuordetzari dagozkion jardun-arloetan Sailburuordetzaren mendeko zuzendaritzen eta bestelako organo eta administrazio-unitateen jarduerak zuzendu, koordinatu eta gainbegiratzea, horiek egoki funtziona dezaten jarraibideak eta zirkularrak emanaz; era berean, horien helburuak lortzeko behar diren aldaketak eta garapenak zehaztea, izango duten eragin sozialari so eginez. Sailburuordetzaren zuzendaritzetan eta administrazio-unitateetan oinarritutako antolamendu operatiboa proposatzea, ezarrita dauden antolamendu irizpideekin bat.

Kontratazio-organoa izatea. Sailaren eta administrazioaren organoen arteko harreman-organoa izatea dagozkion arloetan. Harremanak izatea Estatuko, autonomia erkidegoetako zein foru aldundietako organoekin eta toki-entitateekin.

Bere eskumeneko arloetan zerbitzu eta lan hizkuntza euskara izan dadila bultzatzea, Gobernu Kontseiluak onartutako Euskararen Agenda Estrategikoaren arabera.

3.1.2.

Kultura Ondarearen Zuzendaritza

MIKEL AIZPURU MURUA
KULTURA ONDAREAREN ZUZENDARIA

JUAN ANGEL EZPELETA MATEO
ADMINISTRARIA

ITZIAR RUBINA IBAÑEZ DE GARAYO
IDAZKARIA

Kultura Ondarearen Zuzendaritzaren **jarduna:**

Euskal kultura ondarea zaintzean, aberastean, babestean, zabaltzean eta sustatzean datza, baita museoei zein liburutegiei loturiko eremuetan ere.

Zuzendaritzako jarduerak programatu, zuzendu, koordinatu eta kontrolatzea; organo arduradunei planak, jardun-programak eta arau-garapenak proposatzea; esleitutako eremuetan beharrezko diren administrazio-ekintzak ematea; mendekoak dituen zerbitzu eta unitateak, hala nola lan-sistemak antolatzea; dagokionean kontratazio-organoa izatea; hizkuntza ofizialen erabilerari dagokionean, euskara normalizatzeko planaren arabera helburuak finkatu eta horiek lortzeko jarduerak garatu zein ebaluatzea. Zuzendaritzako jardun-eremuetan, hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak ezarri eta horien jarraipena egitea, eta hizkuntza-irizpideak txertatzea administrazio-kontratazioan nahiz diru laguntzetarako deialdietan.

Kultura Ondarearen Zuzendaritzak honako **zerbitzuak** ditu bere egitekoak gauzatzeko:

- **Euskal Kultura Ondarearen Zentroa**

- **Museoen Zentroa**
- **Euskadiko Dokumentu Ondarearen Zentroa, Irargi, eta Euskadiko Artxibo Historikoa**
- **Liburutegi Zerbitzua**
- **Euskadiko Liburutegi Digitala (Euskariana)**
- **Jabetza Intelektualaren Erregistroa eta Kultura Ondarearen Aholkularitza Juridikoa**

<https://www.euskadi.eus/eusko-jaurjaritza/kultura-ondarea/>

3.1.2.1.

Euskal Kultura Ondarearen Zentroa

DONA GIL ABAD
ZERBITZUBURUA

JOSE IGNACIO MARTINEZ DE LUCO
IRAZU
ARKITEKTOA

GORETTI FARIÑAS EGAÑA
ARKITEKTOA

IÑAKI ETXEBESTE GOIKOETXEA
ARKITEKTOA

ITZIAR ECHEVARRIA MARTINEZ
ARKITEKTOA

ARMANDO LLAMOSAS RUBIO
KULTURA ONDAREAREN TEKNIKARIA

TXEMA URIARTE GONZALEZ
KULTURA ONDAREAREN TEKNIKARIA

NATXO RAMIREZ DE LA PISCINA ROJO
KULTURA ONDAREAREN TEKNIKARIA

MAITE IZQUIERDO MARCULETA
KULTURA ONDAREAREN TEKNIKARIA

AMAIA GOIKOETXEA MARQUES
ZABALKUNDE TEKNIKARIA

MERCHE PRIETO HEREÑA
ADMINISTRARIA

MARTA MENENDEZ FERNANDEZ
ADMINISTRARIA

RAMON SUINAGA ESPIN
ADMINISTRARIA

Euskal Kultura Ondarearen Zentroaren **egitekoa** da:

Euskal administrazio publikoek euskal kultura-ondarearen alorrean egiten dituzten jarduketak koordinatzea.

- Kultura-ondasunak aitortzea.
- Euskal Kultura Ondarearen EAEko Erregistroa kudeatzea.
- Oinarrizko Babesa duten Kultura Ondasunen EAEko Erregistroa kudeatzea.
- Euskal kultura-ondarearen inbentarioak egin eta eguneratzea, beharrezkoak diren irizpide tekniko zein metodologikoak ezarriz.
- Euskal kultura-ondareari eragiten dioten arau eta planen aldeztasunetik txostena egitea.
- Euskal kultura ondarearen balioa nabarmentzeko sustapen- neurri ekonomikoak bultzatzea.

- Erosleentasun-eskubidea eta atzera eskuratzeko eskubidea egikaritzea, bai beretzat bai beste erakunde batzuentzat.

- Euskal kultura-ondarearen zabalkundea egitea.

- Akordioak eta lankidetzahitzarmenak sustatzea beste autonomia erkidegoekin, Estatuaren Administrazio Orokorrarekin, Europako erakundeekin eta nazioarteko erakundeekin.

<https://www.euskadi.eus/eusko-jaurjaritza/kultura-ondarearen-zentroa/>

3.1.2.2.

Museoen Zentroa

AINHOA BERNABE ARAMBERRI
TEKNIKARIA

AITOR ANTUÑANO ZUBIETE
TEKNIKARIA

Museoen Zentroaren **jarduna**, museo eta bildumen erregistroa kudeatzeaz eta diru-laguntzan bidez horien jarduerak sustatzeaz gain, museo-funtsen dokumentazioa, kudeaketa eta hedapena koordinatzen ditu EMSIME informazio sistemaren bidez. Museoen Zentroaren lan ildoak hauek dira:

- EAEko Museoen Direktorioa osatu eta eguneratzea;
- Euskadiko museo eta bildumen erregistroa eratzea, "Euskadiko Museoa" edo "Euskadiko Bilduma" gisa, inbentario ofizial bat sortzeko;
- Euskadiko museoen katalogo kolektiboa elikatzea.

<https://www.euskadi.eus/eusko-jaurjaritza/museoen-zentroa/>

3.1.2.3.

Artxibo eta Ondare Zerbitzua

BORJA AGINAGALDE OLAIZOLA
ZERBITZUBURUA

ITZIAR DE AZUA BREA
ARTXIBATEGI TEKNIKARIA

JOSEBE ALONSO MARIGOMEZ
ARTXIBATEGI TEKNIKARIA

NATXO GARAY HINOJAL
MIKROFILMAZIO TEKNIKARIA

PILI AYASTUY URBINA
ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA

BINGEN GANA VIDAL
MENPEKOA

UNAI CUEVAS ARANO
ARTXIBATEGI TEKNIKARIA

Artxibo eta Ondare Zerbitzuaren **programa nagusiak** dira:

- Euskadiko Artxiboen Sistemaren web-ataria (dokuklik) kudeatzea. Euskal Autonomia Erkidegoko artxibo historiko publiko eta pribatuak eskuragarriak dira atari horretan: XIII. mendetik XX. mendera bitarteko dokumentuen 680.000 deskribapen eta 4 milioi irudi digital biltzen ditu. Horiei 1500etik 1900era herrialdeko populazioaren zentsu historikoa gehitu behar zaie, 5,5 milioi erregistro pertsonalek osatua.
- Euskadiko Memoria Digitala elikatzekeko Artxiboko funtsen digitalizazioa, Ondare Dokumentalaren arloan.
- Administrazio Orokorrari eta Udal Artxiboei dagozkien batzordeak eta lantaldeak eratzea.

- Toki-administrazioko artxiboen sarea kudeatzen laguntzeko eta artxibo ez-publikoei laguntzeko diru-laguntza programak burutzea.
- Gainera, Kultura Ondarearen Zuzendaritzak, Artxibo eta Ondare Dokumentalaren Zerbitzuaren bidez, diseinatzen, kudeatzen eta gauzatzen ditu artxibo eta ondare dokumentalaren politikari dagozkion aurrekontuak.

<http://www.artxibo.euskadi.eus/eu/inicio>

3.1.2.4. Liburutegi Zerbitzua

FRANCISCA PULGAR VERNALTE
ZERBITZUBURUA

PATRICIA ACEBES HERNANDEZ
LIBURUTEGI TEKNIKARIA

ESTIBALITZ ZUBIAUR ETCHEBERRY
LIBURUTEGI TEKNIKARIA

MIKEL ARENAZA GOÑI
ADMINISTRARIA

MIRARI IZAGIRRE IBAIBARRIAGA
ADMINISTRARIA

MONIKA LORENZO ECHEVERRI
ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA

Liburutegi Zerbitzuari dagokio Euskadiko liburutegi publikoen kudeaketa.

Bere funtzioen artean dago, esaterako, Irakurketa Publikoko Sareko liburutegiei aholkularitza teknikoa ematea eta horien planifikazio-, funtzionamendu- eta koordinazio-egitekoak garatu eta gauzatzea, jardun-eredu izango diren irizpide teknikoak eta jarraibideak ezarri, eta liburutegi horien arteko lankidetzak bultzatzea. Zentzu horretan, ondare bibliografikoaren eta liburutegien arloko beharrianak aztertu eta arauzko neurriak proposatu eta euskararen erabilera normalizatzeko beharrianak aztertzen ditu. Halaber, zerbitzuaren eginkizuna da erabilera publikoko liburutegietan lan egiten duten pertsonen etengabeko prestakuntza bultzatu eta horien profila definitzea.

Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarea batez ere Euskadiko udal liburutegiek osatzen dute, nahiz eta zerbitzu horretan integratuta badauden udal-titularitatekoak ez direnak ere (Eusko Jaurlaritza, Artxibo Historikoa, HABE, Lazkaoko Beneditarren Artxiboa, Zarauzko Photomuseuma...). Une honetan 205 udalerritan kokatutako 300 liburutegi baino gehiagok osatzen dute.

Gainera, Liburutegi Zerbitzuari dagokio irakurtzeko zaletasuna sustatzeko neurriak diseinatzea.

Eskaintzen dituen **zerbitzuak** dira:

- Katalogo bateratua: liburutegi publiko guztien informazio bibliografikoa duen datu basea, Lege Gordailuko funtsak barne.
<https://www.liburubila.euskadi.eus/>
- Bilgunea (Euskadiko liburutegien katalogo kolektiboa): EAEko liburutegi publiko zein pribatuetako funtsak biltzen ditu (foru aldundietakoak, espezializatuak, unibertsitatekoak eta abar).
http://www.katalogoak.euskadi.eus/cgi-bin_q81a/bilgunea/O9460/ID6a1bfe18?ACC=101
- Liburuklik: euskal ondare bibliografikoaren kontserbazioa bermatzen duen plataforma digitala da, ondare horren zabalkundea zein irisgarritasuna errazten dituena.
<http://www.liburuklik.euskadi.eus/>
- eLiburutegia: Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarearen plataforma bat da Interneten bidez eduki digitalen irakurketa errazten duena. Irakurketa hori streaming bidez, ordenagailuaren bitartez edo gailu mugikorrek direla medio burutu daiteke.
<http://www.eliburutegia.euskadi.eus/>

<https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/liburutegi-zerbitzua/>

3.1.2.5. Euskadiko Liburutegi Digitala

SINDI BARBEITO MEIZOSA
ZERBITZUBURUA

PRADO DOALTO MARTÍN
LIBURUTEGI TEKNIKARIA

JUNE GÓMEZ ALONSO
LIBURUTEGI TEKNIKARIA

IÑIGO MURGUIONDO ALDAMA
INFORMATIKARIA

DAVID GARCIA DE VICUÑA
LOPEZ DE CIORDIA
INFORMATIKARIA

JOSUNE GARITANO TELLERIA
ADMINISTRARIA

- Euskadiko Liburutegi Digitalak euskal mundu digitalizatuaren ataria izan nahi du.
- Euskadiko Liburutegiaren funtzioak bereganatu: Autoritateen katalogoa, Lege Gordailua, Ondarenet, Liburuklik,...
- Ondarearen definizio zabalagoa hartu du: Liburutegiak, Museoak, Artxiboak, Higiezina, Immateriala.
- Orain arte bultzatutako digitalizazio-politikak bateratu eta indartuko ditu.
- Eduki berriak sortuko ditu.
- Nazioarteko estandarretara egokituko ditu.
- Euskal herritarren eta munduaren zerbitzura jarriko ditu.

3.1.2.6.

Jabetza Intelektualaren Erregistroa eta Kultura Ondarearen Aholkularitza Juridikoa

JUAN CARLOS SOTO PEREZ
ZERBITZUBURUA

MIKEL CARRILLO DE LA PEÑA
ABOKATUA

ANDONI TIRADO OLEAGAGOITIA
ABOKATUA

PAUL ESNAOLA SAN SEBASTIAN
ABOKATUA

GLORIA CALVO POZA
ADMINISTRARIA

Jabetza Intelektualaren Erregistroari eta Kultura Ondarearen Aholkularitza Juridikoari honakoa dagokie:

- Inskripzioa eta idazpena egiteko eskaerak izapidetu eta ebatzea, eta, dagokion kasuetan, inskripzioak indargabetzea edo egikaritzea.
- Jabetza Intelektualaren Erregistroan inskribatuta dauden eskubide, egintza eta kontratuak ziurtatzea eta publikotasuna ematea.
- Gordailuko dokumentu eta materialak artxibatu eta zaintzea.
- Jabetza Intelektualaren Erregistroa kudeatzeko behar diren eginbideak, baita indarreko ordenamendu juridikoak esleitzen dizkionak ere.
- Jabetza intelektualearen eskubideak dituzten autoreen edo beste titular batzuen kontura eta horien interesen alde, ustiatze-eskubideak eta jabetzaren arloko gainerako eskubideak beren kontura edo inoren kontura kudeatzea xede duten erakunde edo elkarteei baimena ematea nola indargabetzea. Erakunde horien estatutuak eta horien aldaketak onartzea eta guztiek indarreko araudian ezarrita dauden baldintzak eta betebeharrak betetzen dituztela zaintzea eta horiek kontrolatzea. Bitartekaritza eta arbitrajea dagokion eremuan.

- Kultura Ondarearen Zuzendaritzari aholkularitza juridikoa ematea.

<https://www.euskadi.eus/jabetza-intelektuala/web01-a2kulond/eu/>

3.1.3.

Kultura Sustatzeko Zuzendaritza

AITZIBER ATORRASAGASTI CALCEDO
KULTURA SUSTATZEKO ZUZENDARIA

IGONE MARTINEZ DE LUNA UNANUE
KULTUR ETA SORMEN INDUSTRIETAKO
AHOLKULARIA (*iraila arte*)

EDURNE LASKIBAR JAURRIETA
ADMINISTRARIA

EDURNE OYANGUREN BENGEOA
ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA

AMAIA ARNORIAGA MUJIKI
IDAZKARIA

Kultura Sustatzeko Zuzendariaren **egitekoak** honakoak dira:

- Zuzendaritzako jarduerak programatu, zuzendu, koordinatu eta kontrolatzea.
- Planak, jardun programak eta arau garapenak proposatzea organo arduradunei.
- Esleitutako eremuetan beharrezko diren administrazio egintzak ematea.
- Ardurapeko dituen zerbitzu eta unitateak, hala nola lan sistemak antolatzea.
- Dagokionean, kontratazio organoa izatea.
- Hizkuntza ofizialen erabilerari dagokionean, euskara normalizatzeko planaren araberako helburuak finkatu eta horiek lortzeko jarduerak garatu zein ebaluatzea.
- Zuzendaritzako jardun eremuetan, hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak ezarri eta horien jarraipena egitea, eta hizkuntza irizpideak txertatzea administrazio kontratazioan nahiz diru-laguntzetarako deialdietan.

- Gure herrialdeko kultura eta arte adierazpide ezberdinetan dauden beharrianak aztertzea eta Euskal Autonomia Erkidegoan arlo horietan egiten diren jarduerak bultzatu, sendotu eta zabaltzea asmoz administrazio neurriak hartzea.

- Sailburuordetzaren eremuan, egokitzen jotzen diren azterketak eta ikerketak dokumentatu, egin eta zabaltzea.

- Erakunde publiko eta pribatuaren arteko koordinazioa eta lankidetzaren sustatzeko formulak bilatzea eta jardun publikoa planifikatzea.

- Aipatutako eremuetan kultura kontserbatzeaz, sortzeaz eta zabaltzeaz arduratzea.

- Euskadiko kultura industriak garatzen laguntzea.

- Euskal Autonomia Erkidegoaren eta euskararen eremuko beste lurraldeen arteko kultura harremanak sustatzea.

- Etxepare Euskal Institutuarekin elkarlanean jardutea euskal kulturaren sorkuntza kanpoan zabaltzeko neurriak aztertzea eta proposatzeko.

- Kulturaren Euskal Behatokia zuzendu eta kudeatzea, Euskal Autonomi Erkidegoko kulturaren alorrean informazio, dokumentazio eta ikerketa zentroa den aldetik.

Kultura Sustatzeko Zuzendaritzak honako **zerbitzuak** ditu aipatutako jarduerak gauzatzeko:

- **Kultura Sustatzeko Zerbitzua**

- **Kultura eta Sormen Industrietako Programa**

- **Kulturaren Euskal Behatokia**

https://www.euskadi.eus/web01-s2kultur/eu/contenidos/entidad/entity46082770/eu_def/index.shtml

3.1.3.1

Kultura Sustatzeko Zerbitzua

ARTURO GARCIA FIEL
ZERBITZUBURUA

JOSE LUIS IBARZABAL EGUIBAR
TEKNIKARIA

MARIJE CAMBRA CONTIN
TEKNIKARIA

IMANOL ARANA ARIZ
TEKNIKARIA

MARTA MERINO ORTIZ DE LANDALUCE
TEKNIKARIA

MANU GALARRAGA IZAGUIRRE
TEKNIKARIA

RAFA ELIZONDO SAIZ
TEKNIKARIA

LOURDES ARANGUREN SUDUPE
TEKNIKARIA

Kultura Sustatzeko Zerbitzuaren **zeregina** da gure herrialdeko kultura eta arte adierazpide ezberdinen (musika, arte eszenikoak, ikus-entzunezkoak, arte plastikoak, literatura argitalpena, etab.) sorkuntza, ekoizpena eta zabalkundearen sustatzea, eragileen prestakuntza eta profesionalizazioa piztea, eta herritarrentzako kalitatezko kultur eskaintza bermatzea.

3.1.3.2.

Kultura eta Sormen Industrietako Programa

JOSEAN URDANGARIN ARRIZABALAGA
ZERBITZUBURUA

FAUSTINO KANALAETXEBARRIA
ZAMORA
TEKNIKARIA

SABIN GOITIA GOIENETXEA (iraila arte)
AHOLKULARIA

Kultura eta Sormen Industrietako Programaren **egitasmoa** kultura eta sormen industriak sustatzera bideratutako hainbat proiektu garatzea da, orain arte kulturaren bazterretan egon diren diziplinak aintzat hartuz. KSI Berritzaile da ildo horretako proiektu nagusietako bat.

Kultura eta sormen industriak era azpimarragarrian garatzen ari dira Europan eta eragin handia dute ekonomiaren garapenean eta hirien suspertzean. Euskadiren kasuan, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza 2020 Planean sartutako RIS3 (Regional Innovation Strategy for Smart Specialization) izeneko Europako berrikuntza-estrategia berriaren barruan, Euskadin espezializazio adimendunaren lehentasun estrategikoak identifikatu dira, eta horien artean dago kultura eta sormen industrien arloa.

<https://www.euskadi.eus/web01-a1kulind/eu/>

3.1.3.3.

Kulturaren Euskal Behatokia

MIKEL ETXEBERRIA AGIRRESAROBÉ
ZERBITZUBURUA

AITOR PEREZ SALTERAIN
TEKNIKARIA

ITZIAR REDONDO DOMINGUEZ
TEKNIKARIA

Kulturaren Euskal Behatokiaren **funtzioak** dira:

- Kulturari buruzko informazioa ordenatu, balioztatu eta sortzea.
- Euskal kulturaren egoera, bere azpi-sektoreena eta gizartearen eskakizunak aztertzea.
- Kulturari, bere zentzurik zabalenean, lotutako alderdi orokorrak, sektorialak edo lurraldearen arabekoak aztertzea. Horretaz gain, euskal kultura-sistemaren I+G+b lerroak formulatzea eta egokitzea.

Behatokiak erakundeei, kultura sektoreei, zientzia-komunitateari eta hiritarrei orokorrean, informazio baliogarria eskainiko die, besteak beste, publikazioak, ikerketa estatistikoak, lan taldeen antolakuntza, jardunaldiak eta abar erabiliz.

<http://www.kultura.ejgv.euskadi.eus/r46-19130/eu/>

3.1.4.

Organo Kolegiatuak eta Beste Administrazio Atalak

Kultura Sailburuordetzak honako organo kolegiatu eta administrazio ataletan esku hartzen du:

Kulturaren Euskal Kontseilua

Kulturaren Euskal Kontseiluak (KEK), 2000. urtean sortu zenetik, euskal kulturako eragile publiko eta pribatuen topaleku bihurtu nahi izan du. Bere helburu nagusia lankidetzaren bultzatzea eta kulturaren euskal eremua egituratzea da, gero eta globalizatuagoa den ingurunean. Helburu hurbilekoena koordinazioa sustatzea da, hiru norabidetan: koordinazio bertikala kultur gaitan eskudun diren hiru erakunde mailetako organoen artean (Jaurlaritza, aldundiak eta udalak); koordinazio horizontala kultur jardueran gehien eragiten duten erakunde-esparruekin nahiz Nafarroa eta Iparraldeko erakunde publiko eta pribatuekin; eta, azkenik, koordinazioa hainbat kultur sektoretako gizarte eragileekin.

https://www.kultura.ejgv.euskadi.eus/r46-6614/eu/contenidos/informacion/consejo_vasco_cultura/es_10358/es_consejo.html

Euskal Ikus-Entzunezkoaren Erakunde arteko Batzordea (EIEB)

<http://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2003/10/0305382a.pdf>

Euskadiko Ondare Arkitektoniko Monumentalaren Aholku Batzordea

<http://www.euskadi.eus/bopv2/datos/1990/11/9003396a.pdf>

Euskadiko Arkeologia Ondarearen Aholku Batzordea

<http://www.euskadi.eus/bopv2/datos/1996/04/9601762a.pdf>

Euskadiko Dokumentu Ondarearen eta Artxiboen Aholkularitza Kontseilua

<http://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2000/12/0005495a.pdf>

Dokumentazioa Balioesteko eta Aukeratzeko Batzordea

<http://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2000/12/0005495a.pdf>

Euskadiko Liburutegien Aholku Batzordea

<http://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2009/01/0900217a.pdf>

3.2./ PATRONATUAK, ERAKUNDE AUTONOMOAK, ERAKUNDE PUBLIKOAK ETA SOZIEKATE PUBLIKOAK

3.2.1.

Patronatuak

Kultura Sailburuordetzak kultur arloko honako fundazio zein erakundeen patronatuetan du ordezkaritza:

Guggenheim Bilbao Museoa Fundazioa

<http://www.guggenheim-bilbao-corp.eus/eu/>

Bilboko Arte Ederren Museoaren Fundazioa

<https://www.museobilbao.com/eu/fundacion.php>

Artium, Arte Garaikidearen Euskal Zentro - Museoaren Fundazioa

<http://www.artium.eus/eu/fundazioa>

Tabakalera, Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroa SA

<https://www.tabakalera.eu/eu/gardentasuna/antolaketa/estatutuak>

Cristóbal Balenciaga Museoaren Fundazioa

<https://www.cristobalbalenciagamuseoa.com/eu/gardentasun-ataria/fundazioa/>

Donostiako Nazioarteko Zinemaldia SA

<https://www.sansebastianfestival.com/eu/>

Euskadiko Orkestra SA

<https://www.euskadikoorkestra.eus/>

Euskal Herriko Gazte Orkestra Fundazioa

<https://www.egofundazioa.org/>

Eresbil, Musikaren Euskal Artxiboaren Fundazioa

<https://www.eresbil.eus/>

Euskadiko Filmatagia Fundazioa

<http://www.filmotecavasca.com/eu>

Ekain Fundazioa

<https://www.ekainberri.eus/eu/ekain-fundazioa/>

Añanako Gatz Harana Fundazioa

<http://www.vallesalado.com/Ananako-Gatz-Harana-Fundazioa->

Donostiako Musika Hamabostaldia SA

<https://www.quincenamusal.eus/eu/>

Miramar Jauregia Partzuergoa

<http://palaciomiramar.eus/eu/>

Joxe Miguel de Barandiaran Fundazioa

<http://www.barandiaranfundazioa.eus/index.php/eu/>

Berroeta Aldamar SL

<https://www.euskadi.eus/eusko-jaurilaritza/-/entitatea/berroeta-aldamar-s-l/>

Mundubira 500: Elkano Fundazioa

<https://elkanofundazioa.eus/eu/elkano-fundazioa/>

3.2.2.

Erakunde Autonomoak, Erakunde Publikoak eta Sozietate Publikoak

Kultura Sailburuordetzaren egituraren baitan badira, halaber, erakunde autonomo edo publiko nahiz sozietate publiko izaera duten erakundeak. Horiek dira:

Etxepare Euskal Institutua

zuzenbide pribatuko erakunde publiko honen xedea da euskara, euskal kultura eta euskal sortzaileen lana mundu osoan zehar zabaltzea.

<https://www.etxepare.eus/eu/zer-da-etxepare>

Euskadiko Orkestra sozietate publiko honen helburua da musika ondarea, bereziki euskal musika ondarea gorde eta zabaltzea, eta baita sortzaile zein interprete berrien lana sustatzea ere.

<https://www.euskadikoorkestra.eus/herrialde-mailako-orkestra-bat>

Euskal Herriko Gazte Orkestra

Fundazioak instrumentista gazteei orkestra musika profesionalerako prestakuntza bidean laguntzen die. 2020an aro berri bati eman zaio hasiera, zuzendaritza eta kudeaketa-eredua eta dinamika aldatuz.

<https://www.egofundazioa.org/>

3.3. **AURREKONTUA**

Kultura Sailburuordetzaren 2020ko aurrekontuaren gauzatzearen xehetasuna.

KULTURA ONDAREAREN ZUZENDARITZA

25.181.195,11 €

Ondare historiko artistikoaren zerbitzu orokorrak:
582.634,18 €

Euskal Kultura Ondarearen Zentroa:
3.306.919,51 €

Museoen Zentroa:
12.289.941,18 €

Euskadiko Artxibo Historikoa:
1.660.091,15 €

Liburutegi Zerbitzua:
2.172.964,09 €

Liburutegi digitala:
408.462,42 €

COVID 19 neurriak:
1.252.822,46 €

KULTURA SUSTATZEKO ZUZENDARITZA

35.129.471,86 €

Kultura sustapena:
5.807.753,04 €

Musika:
11.021.409,09 €

Arte eszenikoak:
3.286.397,85 €

Arte plastikoak eta ikusizkoak:
800.275,50 €

Liburua eta literatura:
1.546.412,91 €

Ikus-entzunezkoa:
5.929.220,25 €

Kultura eta Sormen Industrien berrikuntza funtsa:
1.197.706,05 €

Kulturaren Euskal Behatokia:
320.257,03 €

Etxepare Euskal Institutua:
3.065.000,00 €

Covid 19 neurriak:
1.058.560,35 €

4/

Egitasmo Nagusiak

COVID19ren pandemiak markatu du 2020 urtea. Gizartea hankaz gora jarri duen osasun larrialdiak bereziki gogor astindu du kulturaren eremua bere aspektu guztietan: sorkuntzan, ekoizpenean, kultur eskaintza bideratzen duten antolamendu publiko eta pribatuetan, haien gizartearekiko harremanetan eta publikoen beraren ohituretan. Ohiko jarduna eten egin zen, urte horretarako aurreikusiak zeuden jarduera eta ekintzak bertan behera geratu ziren, birak, zirkuitoak eta nazioarteko mugikortasuna ezinezko bihurtu ziren. Pandemiak, kulturaren beharra inoiz baino argiago ikusarazi duen aldi berean, kulturgileen biziraupena arrisku larrian jarri du. Sormenaren eta kulturgintzaren aspektu profesionala izan da -lan baldintzak, estuasun ekonomikoak, sortzaileen biziraupena, enpresa eta egituren jarraikortasuna...- guztion kezka nagusia 2020an.

4.1./ KRISIAREN KONTRAKO NEURRIAK

2020ko martxotik hona, pandemiaren hedapenak hiru fase nagusi izan ditu: (I) lehen itxialdia, martxotik ekaina arte, jardun ia guztiak eten zituena. (II) Jardunera itzultzeko aukera etorri zen gero, egoerari egokitutako neurri zorrotzen baitan. Udako jardun inportante asko, hala ere, galdu egin ziren. (III) Itxialdia dekretatu behar izan zen berriro urrian, baina Euskadin kultur jardunari eutsi egin zaio, gure inguruko estatu eta lurralde askotan ez bezala.

Ezinbestean, pandemiak eta haren kontra hartu izan beharreko neurriek goitik behera baldintzatu dute 2020ko jardun osoa. Aurrekontuari eutsi dio Kultura Sailak, eta ekarpen bereziak lortu ditu larritasunari aurre egiteko; deialdiak eta zerbitzuak egokitu ditu egoerari erantzuteko; programa eta laguntza lerro bereziak abiarazi ditu; Osasun Sailaren eta kultur gintzaren arteko zubi-lana egin du, osasun neurriak kulturaren alor bakoitzaren ezaugarriak kontutan har zitezen.

Bestalde, kultur gintzaren lan baldintza bereziak oztopo gertatu dira maiz, bai laguntza orokorrak bai laguntza bereziak kultur gintzara hel zitezen. Kultur gintzan, lan jarduna etengabea bada ere, jardun ekonomikoa intermitentea da askotan, eta formalizatu gabeko harreman ekonomikoa oso ohikoa da. Kultur gileen lan-jarduna eta estatus profesionala frogatzeko zailtasunak inoiz baino argiago agertu dira, besteak beste egun

indarrean dauden klasifikazioak ez direlako egokiak. Gordin azaldu dira sektorearen zaugarritasuna eta hauskortasuna. Pandemiak, kultur jardun osoa trabatu badu, kulturaren jardun ekonomikoa urratu du bereziki. Eta kultur gile profesionalik gabe ez dago kultura jardun euskor, iraunkor, emankor eta bikainik.

Lau alor nagusitan laburbil daiteke 2020. urteko jardunearan Kultura Sailburuordetzak osasun larrialdiaren egoerari eman dion erantzuna: koordinazioa, deialdi eta zerbitzuen egokitzapena, laguntza ekonomikoak eta aktibitateari eusteko laguntza bereziak.

Komunikazioa eta koordinazioa

Kultur gileekin etengabeko harreman zuzena bereziki zaindu du Kultura Sailak. Itxialdian zehar, etengabeko komunikazioa izan da kultur gintzako elkarten eta sektoreko enpresen ordezkariekin, egoera ezagutzeko, datuak biltzeko, kultur gileen eskaera eta aldarrikapenak jasotzeko, abiarazitako neurriak adosteko eta ezagutarazteko. Haien analisiak, diagnostikoak, datuak, eskakizunak eta exijentziak oso garrantzitsuak izan dira kultur politikak egokitzeko eta hezur-mamitzeko orduan.

Kultura Sailari lankidetzaz bereziak eskatu dizkio egoera horrek: Lanbiderekin batera landu zuen Kulturak lehen deialdi berezia, Osasun Sailarekin harremana etengabea izan da, jardunari eusteko baldintzak aztertzeko, Ogasun Sailarekin negoziatu dira diru-partiden aldaketak eta ohiz kanpoko baliabideak... Jaurlaritzaren gainerako Sailekin hainbat hitzarmen eta akordio bizkor lotu beharrak ageriago utzi du kultur gileen jardun profesionala zenbateraino gertatzen den irakurgaitza parametro estandarizatuetatik.

Koordinazio premia berriak planteatu dizkio egoerak kultur gintzaren sektoreari ere, kultur gintzaren antolamendu eta ordezkariak konplexuagoak eskatu bait ditu. Koordinazio eta batera gune berriak sortu dira. Sektorearen barne antolamenduak eta sektorearekiko interlokuzioak –lehenago ere aztergai genuen gaia (Kultura Auzolanean egitasmoaren baitan landu izan da, hain zuzen), garrantzi berezia hartu dute orain.

Sektorearekiko koordinazioaz gain, erakundeen arteko koordinazioa indartu zen. Egoeraren larriak elkarren berri jakitea ezinbestezko egin du, koordinazioaren eta osagarritasunaren beharra areagotu du. HAKOBA Kulturak garrantzi berezia hartu du beraz. Bilerak maizago egin dira, eta etengabekoa izan da erakundeen arteko harremana, formalizatua nahiz formalizatu gabea.

Kulturaren Euskal Kontseilua maiztean deitu zen, hasierako kolpeari lehen erantzuna eman ondoren, egoeraren berri emateko, diagnostikoaz hausnarketa egiteko eta hartutako neurrien informazioa eskaintzeko.

Kultur jarduna berreskuratzen joan den garaian, harreman kate horiek funtsezkoak gertatu dira. Kultura Sailak etengabeko zubi lana egin du sektorearen eta Osasun Sailaren artean, osasuna bermatzeko neurriak kultura jardun mota bakoitzaren ezaugarri ahal bezainbat egokitzeko.

Deialdiak eta zerbitzuak egokitzea

Esan behar da, lehen-lehenik, aurrekontuari eta, beraz, deialdi eta laguntza-lerro guztiei eustea izan dela ahalegin nagusia. Baina, aldi berean, egoera aldakor eta

ziurgabetasunez betetakoak gure deialdien eta diru-laguntzetarako baldintzen egokitzapena exijitu du. Deialdien baldintzak, epeak eta betebeharrak aktibitatek burutu ezin zitekeen egoerari egokitu zaizkio.

Aldi berean, zerbitzu batzuk ere egokitu ziren 2020an, erantzun egokiagoak emateko xedez:

- Kulturaren Euskal Behatokia Krisiaren Behatokia bihurtu zen. Bertan zentralizatu genituen datu bilketak, datuen azterketak eta bertatik egin zen egoeraren jarraipen zorrotza. HAKOBAN biltzen diren erakunde guztiei eman zien Behatokiak zerbitzua.
- Kulturklik –kulturaren agenda eta direktorioa eskaintzen dituena-, Kulturklik Pro bihurturik, izan da Jauraritzak, euskal erakundeek, Espainiakoek nahiz Europar Batasunak abiarazitako neurrien informazio eguneratua eskaintzeko erreferentzia.
- Aholkularitza zerbitzu berezi bat antolatu genuen, kulturgileei laguntza orokorretara nahiz berezietara aurkezteko bideak argitzeko. Lan handia egin du Aholkularitza Zerbitzuak kulturgileek laguntza-lerro horien aurrean izan zitzaizketen zalantzak eta eragozpenak leuntzen.
 - 7.500 bisita izan zituen zerbitzuak webgunean
 - Diru-laguntzen azalpena sustatzeko sortutako gidek 1.400 deskarga izan zituzten
 - 1.200 kontsulta kudeatu ziren.
- Kultur eta Sormen Industrien politiketan ere deialdi berezi bat antolatu zen, KSI Berritzaitetik (berrikuntza sustatzeko programatik) abiatu, Egokituz2020 izenekoa, enpresei baliabideak emateko egoera berriaren eta, batez ere, digitalizazioaren aurrean.
- Bereziki aipagarria da e-Liburutegiari eman zitzaion

bultzada. Lan-taldea indartuz, eta lizentzien erosketa nabarmen handituz, irakurketa digitalerako eskaintza publikoan jauzi kualitatiboa eman da, premiarik handiena zegoenean.

Kultur azpiegituren jardunak ere egokitu behar izan du, urtean zehar bizi izan ditugun fase desberdinetan. Erabateko itxialdian, ahalegin handia egin dute beren zerbitzuak eskaintzeko eta kultur zaleekiko harremanak era digitalean lantzeko. Oso aktiboak izan dira eremu digitalean bai orkestra publikoak, bai museoak, antzokiak, liburutegiak, etc. Aktibitateko aukerak zabaldu zirenetik ere, lan itzela egin dute beren jarduna berrabiarazteko, osasun neurri prebentiboek egokiturik.

- Euskadiko Orkestra Europako lehena izan zen, EiTren laguntzaz, eremu digitalean emanaldiak antolatzen eta, gero, jendaurreko saioak eskaintzen. Euskal Herriko Gazte Orkestrak, bere fase berri honetan, modu digitalean antolatu ditu audizioak eta musikarien hautaketarako prozesuak, gero emanaldiak jendaurrean egin ahal izateko.
- Museoak, bisitaren esperientzia digitalak areagotu ondoren, beren programazioetara itzuli dira, egoerak baldintzaturik eta mugaturik, baina bermatua geratu da haien iraupena eta haien gizartearekiko lotura.
- Euskadiko liburutegiek itxialdia amaitu orduko zabaldu zituzten ateak.
- Antzokietan ere lan izugarria egin da, osasun neurriak errespetatuz zuzeneko arteen iraupena bermatzen.
- Jaialdi asko erori baldin bada ere, ugari dira ospatu ahal izan direnak. Donostiako Zinemaldiaren kasua da, agian, ospetsuena, bere konplexutasunean eredugarri izan delako osasun neurri zehatzak ezartzen.

Babes ekonomikoa: Larritasun ekonomikoak arintzeko Laguntza-bideak

Pandemia egoerari erantzuteko eta itxialdiak ekarritako kalteak arintzeko, diru-laguntzak abiarazi zituzten Europako gobernu guztiek lehen momentutik. Laguntza orokorrak ziren, sektore guztiei bideratuak, printzipioz. Laguntza orokor horiek kulturgintzara ere irits zitezkeen saiatzea izan zen Kultura sailaren lehen eginkizuna. ERTEak egiteko bideak jarri ziren, eta diru-laguntzak bideratu ziren enpresentzako nahiz langile autonomoentzako.

Laguntza bereziak: Deialdi orokorretara heltzeko zailtasunak ikusirik, eta kulturgintzaren galera ekonomikoak arintzeko xedez, laguntza-deialdi bereziak abiarazi ziren. Lanbiderekin hitzartu zen lehen laguntza-lerroa, kulturgintzan enplegua sortzeko eta sendotzeko Elkarrekin-Podemos alderdiaren emendekin baten ondorioz zeukaten diru poltsa bat baliatuz. Autonomoek eta zuzeneko arteetako langile soldatapekoei zuzendu zitzaizkien bereziki laguntza, kolpatuen sektore hori gertatu zela kontuan hartuta. Ahalik eta gehien zaindu zen deialdi horretan kulturgintzaren lan-baldintzekiko egokitasuna eta, bereziki, zuzeneko arteetako sortzaile askoren intermitentzia nahiz kontratazio egoera bereziak. Balizko onuradunen identifikaziorako irizpide orokorrak baliatu behar izan genituen (JEZ / IAE), baina arazo handiak aurkitu genituen kulturgile asko ez zegoelako bere jardun ekonomikoan egoki identifikatuta. Zailtasunak topatu genituen, baita ere, profesionaltasunaren langa zehazterakoan, beren jardunaren ordainketak formalizatu gabe zeudelako maiz, eta askok bestelako lanetan jardun behar izaten duelako bere sorkuntza-lanari eutsi ahal izateko.

Arazo horiek medio, eta kulturgile askok bazuelako bestelako laguntzarik (eta diru-laguntza horiek ezin zitezkeen beste batzuekin bateragarri izan), deialdi horrek ez zuen behar adinako irismenik lortu.

Bigarren diru-laguntza deialdi bat

abiarazi zen, ETEei (mikropymeei) zuzendua, haien egitura gastuak arintzeko xedez. Deialdirako irizpideak malguagoak izan ziren, baina lan ildo horrek ere ez zuen uste izandako eragina lortu. Antzeko gertatu zen Foru Aldundiek ildo horietan abiarazitako laguntzetan.

- Likidezia eragile kulturaleri [Lanbiderekin]
 - 2'5 milioi €
- mikroETEen zein elkarten esturturen kosteak ordaintzeko laguntza.
 - 2 MM/€

Jarduna sustatzeko, enkargu publikoa:

Deialdi berezietarako gorde zen dirua ez zen, esan den moduan, guztiz erabili. Ez da ordea galdu. Laguntza ekonomiko zirenak, jarduna sustatzeko eta ahalbidetzeko diru-laguntza bihurtu ziren.

Ohiko jardunetik berreskuratutako kopuruak eta deialdietan erabiltzerik izan ez ziren kopuruak sorkuntza elikatzerara bideratu ziren, Ogasun Sailarekin adosturik jakina. Bi lerro nagusitan egin da lana: zuzeneko arteetako zirkuitoak elikatzen eta alorrez alor sorkuntza sustatzen, enkargu publikoak eginaz, alor bakoitzeko elkarte edo erakunde erreferentzialen eskutik.

- Zinemagintzan. Eusko Jaurlaritzaren laguntza berezi baten bidez, Zineuskadik itxialdiari buruzko zazpi film labor eragin ditu, film luze batean bil daitezkeenak. Donostiako Nazioarteko Zinemaldia, Zinebi eta EITB izan ditu lankide, deialdia zehazteko, egitasmoak aukeratzeko eta film horiek ikusleengana bitarteko onekin helduko direla bermatzeko.
- Irudigintzan: Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza berezi batez, Euskadiko Irudigileen Elkartek bina marrazki eskatu dizkie Euskadiko irudigile ezagunenei, liburu batean bilduko direnak. Horrela, lan-enkargu profesionala egiteaz gain, irudigileen egoera larria arintzeko asmotan,

argitalpen bat sortu da, hiru hizkuntzetan aurkeztua, euskal irudigileen nazioarteko erakusleho izango dena. Erosketa publikoa ere bideratuko da, liburuak euskal liburutegietara hel dadin bermatzeko, eta edizioa bideragarri egiteko.

- Liburugintzari dagokionez, liburu erosketa bereziki handitu da, euskal liburuak –eta euskarazkoak nagusiki– erosteko konpromisoarekin. Erosketa inguruko liburudendetan egitea eskatzen da, beren-beregi, deialdian. Laguntza berezi honen bidez, urtean liburuak erosteko kopurua 800.000tik 900.000 eurotara igo da.
- Dokumentalisteri lana eskaintzeko eta bide batez euskal kulturaren funts digitalizatuak aberasteko, euskal diskoen azalak katalogatzeko eta digitalizatzeko diru ekarpen berezia egin da, Eresbilen bidez.
- Ikusizko arteetan ere erosketa bereziak egiteko diru-kopurua bideratu da. Lan-ildo honekin artistei arnas ekonomikoa ematea bilatu da eta, aldi berean, Euskadiko bilduma publikoak aberastea, azken arteetako artelanez. Gasteizko Artium, Bilboko Arte Eder Museoa eta Donostiako Tabakalera aritu dira Jaurlaritzako teknikariek batera lanean, irizpideak zehazteko eta artisten eta artelanen hautaketa egiteko. Artiumen bidez bideratu da deialdia, baina erosketak hiru erakunde horien irizpideei eta beharrei begira egin da: euskal bilduma publikoari begira, alegia, museo edo zentro bakoitzaren ikuspegitik harago, ekimen partekatutako batean.

Zirkuituak: Lehen esan bezala, zuzeneko arteak izan dira kaltetuenak pandemiaren ondorioz. Haien jarduna sustatzeko ahalegina egin da, diru-laguntza berezietan erabili ez den dirua baliatuz. Programazioa ez da Jaurlaritzari dagokion esparrua, baina oso garrantzizkotzat jo da kontzertuak, antzerki zein dantza emanaldiak eta bertso saioak sustatzea. EHMBE

(Musika Bulegoa) izan da programa abian jarri duena, ahal den herri guztietan eta ahal den esparru guztietan aktibitatea sustatuz. Eusko Jaurlaritzak finantzatu du programa.

Bestalde, Durango Azokak, euskal kulturaren erakusleho nagusiak, laguntza berezi behar izan du bere burua egoeraren mugetara egokitzeko. Horretarako, ohiko diru-ekarpenaz gain, laguntza berezia jaso du, *Zu non, han DA!* izeneko zirkuitua martxan jartzeko

- Arte Bizien zirkuitua:
 - EHMBEk kudeatua
 - Aurrekontua: 1.487.000 €
- Durangoko Azoka “zu non, han DA!”
 - Aurrekontua: 100.000 €

4.2./ SORKUNTZA ETA EKOIZPENA

Euskal kulturak lortua duen kalitate, profesionaltasun eta bikaintasuna maila bereziki zaindu beharreko altxorra dela argi izan du Jaurlaritzak lehen ere, eta are gehiago egungo egoeran, non nabarmenago eta larriago azaldu den kultura sortzen eta ekoizten duen ekosistemaren zaurgarritasuna. Urteetan, erakundeon kultur politikak jarduna ahalbidetzea izan dute xede, eta jardun hori jendearenganatzeara. Kulturaren ehun profesionala bizirik mantentzeari eman behar izan zaio 2020an lehentasuna, kulturagile profesionalen biziraupena bermatzea ezinbestekoa baita da kultur sistema sendo eta oparora bermatzeko.

Lehen esan den bezala, laguntza orokorrak bideratu dira, laguntza bereziak baita ere, eta , batez ere, jardunari eusteko, programazioa ez eteteko, eta are indartzeko, ez bakarrik Jaurlaritzaren baizik, elkar hartuta, euskal erakunde guztien –erakunde politiko nahiz kulturalen– ahalegin bateratua.

Kultura Sailburuordetzatik, lan-ildo berriak proposatzeaz gain, aurreikusitako eta agindutako programa guztiei eustea izan da etengabeko kezka, egoera berri eta larriari egokiturik, arestian adierazi den moduan.

Kulturklik

Kulturklik plataforma digitalak Euskadiko kultur eskaintzaren berri eguneratua ematea du xede. Egoeraren larritasunari erantzuteko, martxotik bertatik larritasun egoeraren aurreko neurrien informazioa ahalik eta osatuen ematera bideratu zen plataforma hori, **KulturKlik Pro** bihurturik, beren-beregi kultur gile profesionaleri zuzentzen zitzaionez.

KulturKlik Proren osagarri, **aholkularitza zerbitzu** bat jarri zen martxan, laguntza orokor eta berezietara heltzeko kultur gileen zalantzak argitzeko eta zailtasunak arintzeko xedez.

- 7.454 bisita aholkularitza webgunera
- 1.390 giden deskarga
- 537 kontsulta erantzun dira

<https://www.kulturklik.euskadi.eus/aholkularitza/>

Kultur gintzaren egitura profesionalak

Kultur gintza profesionalaren alorrez alorreko elkarteek laguntza izenduna jaso ohi dute beren aktibitatea garatu ahal izateko. Nahiz zailtasun nabarmenak agertu diren beren egitasmoak burutzeko, diru-laguntzak oso osorik banatu dira, egitura profesionalari eusteko, eta kultur gileen antolakuntza eta ordezkaritza ez zitezen erori pandemiaren ondorioz.

Diru-laguntzaren xedea jendaurreko aktibitatea edo nazioartekotzerako programak diren kasuetan ere, diru-laguntzari eutsi egin zaio, sektoreari laguntzeko eta sektorea egituratzeko xedeei eutsi ahal izan ziezaioten.

Nabarmenago geratu da pandemia egoeran elkarte sendo eta zabalaren premia, eta Euskal Herriko Musika

Bulegoa (EHMBE) eredugarri gertatu da, bere baitan hartzen baititu musikaren balio-kate guztiko elkarteak (sortzaileak, interpreteak, musika editoreak, aretoak, e.a.).

- Estructura profesionalak: 20
- Estructurak: 17
- Proiektuak (izendunen bitartez): 31

Arte eszenikoak

2020an arte eszenikoetara bideratutako diru laguntzak, 3.731.814 €-koak izan dira. Itxialdia oso gogorra gertatu da antzokien jardunerako eta, beraz, sortzaileentzako eta teknikarietzako, bereziki beren proposamena kalean eta plazan, agerian, egiten duten antzerki, dantza, zirko eta musika taldeentzat, edota bertsolarientzat.

Zuzeneko arteen sektoreari (antzerkia, dantza, musika...) bideratu zaizkio, nagusiki, laguntza bereziak eta, horien eraginkortasuna lortzeko zailtasunak agertu direnean, programazioa indartzeko programa berri bat jarri da martxan, EHMBEk kudeatu duena *Beste Bat!* izeneko zirkuitoaren bidez (225.000€).

Nabarmendu behar da, baita ere, diru-laguntza jaso duten proiektuen ziriketarako Sailburuordetzak egin duen malgutasun ahalegina, besteak beste, epeak luzatuz eta estreinaldiaren obligazioa saihestuz.

Sorkuntzaren sustapenaren baitan ulertu behar dira, baita ere, **Sorgune** programa (sormena sustatzen duten kultur espazio independenteei laguntzak) eta **Bitartez** (kultur zein gizarte bitartekaritza eta berrikuntza bultzatzen dutenei zuzendua). Zeharkako programak dira, ez dira arte eszenikoetara mugatzen, baina garrantzi berezia du kulturaren aspektu honek bi programetan.

Arras inportantea gertatu da kultur-jardunari eutsi izana. Gure inguruko autonomia elkarteetan eta estatuetan ez bezala, kultur jardunak aurrera egin ahal izan du Euskadin, egoerari egokiturik, jakina. Osasun protokoloen diseinuan eta egokitzapenean lankidetzan estuan aritu da Sailburuordetza sektorearekin, Osasun Sailarekin zubi eginez.

Musika

Programaziorako laguntza bereziak (*Beste Bat!* zirkuitoak) eragin zuzena izan du musikaren sektorean eta, neurri batean, arindu egin du egoerak ekarri duen kontzertuen beherakada. Udatik aurrera, mugaturik bada ere, jarduera berreskuratu denean, ikusi da badela publiko bat leial eta sutsu babesten dituen euskal musikagintza eta kantagintza, bai eta antzerkia ere. Nazioarteko jaialdiek euskal sortzaileengan jarri dute fokoa: programazioa, jaialdia ospatu ahal izan den kasuetan, bertako sortzaileekin hornitu da, eta publikoen erantzuna, euskal sortzaileekiko arreta eta atxikimendua nabariak izan dira. Hori da, beharbada, 2020. urteak utzi digun datu itxaropentsuena.

Herrietako jaiak ospatu ezina larria izan da musikari askorentzat, bai eta bertsolarientzat ere. Musika areto pribatuek, oso garrantzitsuak izanik ere kulturaren eta musikaren panoraman, sortzaileentzako nahiz zaleentzako, arazo handiak izan dituzte jardun jarraitzeko, taberna ere badiren neurrian. *Beste Bat!* zirkuitoaren helburuetako bat haien jarduna bizirik mantentzea izan da.

Bestalde, abesbatzen alorrek ahalegin bereziak egin behar izan ditu bere jardunari eusteko. Kontzertuak emateko eragozpen bereziak izan dituztelarik ere, abeslarien prestakuntza lanak etenik izan ez zezan saiatu dira. Kultura Saitetik bideratzen diren laguntzak osorik mantendu dira, helburu horrexekin.

Musikagintzaren alorrean ere sorkuntzarako deialdiak –musika sortzeko, diskoak edo partiturak argitaratzeko, etab. –ohi bezala kudeatu dira.

Arte plastikoak eta ikusizkoak

Artea sustatzera 445.000 € bideratu dira 2020an, aurreikusita zegoen moduan, sorkuntzan, ekoizpenean zein promozioan arreta jarrita. 60 proiektu babestu dira, ohiko hiru modalitateen bidez: artista plastiko eta bisualei beren proiektuak sortzen eta ekoizten laguntzea, arte plastiko eta bisualen esparruko lanak argitaratzea eta arte plastikoaren arloan zabalkundea bultzatzea.

Arte plastiko eta bisualen arloko sorkuntzari eta sortzaileei zuzentzen zaizkie, halaber, **Eremuak** programa (2020an Donostiako Tabakaleratik kudeatu dena), **Komisario Berriak** programa (hau ere txandaka antolatzen dutena Artium Museoak, Azkuna Zentroak eta Tabakalerak), **Gure Artea**, eta aipatu diren **Sorgune** eta **Bitartez** programak, arte eszenikoez gain, ikusizko arteek garrantzi handia baitute sormenerako eta berrikuntzarako espazio independente horietan.

Museoek ahalegin berezia egin dute euskal sortzaileen sustapenerako. Adierazgarria izan liteke Bilboko Arte Ederrak Museoak, itxirik zegoenean, Maider Lopezi eskatu zion instalazioa (*Arnasa*), museoa bizirik mantentzeko, edota Gasteizko Artiumek, zuzendaritza berriaren programari hasiera emanaz, euskal arte garaikidearen azterketari eta emakume artistei eman dien arreta berezia. Donostiako Tabakalerak indartu egin ditu sortzaileen lantoki, sorgune eta haztegi izateko programak, Euskadin sorkuntzaren sustapenerako gune nagusia izateko xedean. Guggenheim Bilbao Museoak, nahiz atzerriko bisitarien etorrera erabat eten den, goi mailako bere programazioari eutsi dio, eta foko berezia jarri dio Bilbon mende hasieran gertatu zen euskal artearen loraldia. San Telmo Museoak eta Azkunak ere arte garaikideari eta euskal sortzaileekiko loturari zuzendutako programak garatzen jarraitu dute. Museo guztiek egin dute ahalegin berezia, eta emankorra, zerbitzu digitalak hobetzeko eta beraien presentzia sarean areagotzeko eta sakontzeko.

Artisten biziraupenean laguntzeko helburuaz, arte lanen erosketa deialdi berezi bat egin da, lehen aipatu den moduan. Enkargu publikoaz kulturagintzari arnas emateko asmoaren adar bat da, berez, baina hemen enkargua erosketa bihurtu da, artistei eta, hala dagokienez, galeriei arnas ekonomikoa emateko. Bizirik dauden artistei zuzendu zaie programa hori. Eta aldi berean, Euskadiko ondare artistikoa aberasten du, azken belaunaldietako artisten obrak bilduma publikoetan jasoz. Artium, Arte Ederren Museoak eta Tabakalerak osatu dute hautaketa mahaia, artearen

inguruko kultur azpiegituren lankidetzak estutuz, bide batez. Izan ere, guztientzat erosi dute eta ez nork bere bildumarako, horretarako bai baitute, lehendik ere, diru-laguntza larroak. Beraz, artelanen erosketa hau museoek ohikoa duten erosketarako partidaren osagarri izan da. Artiumek kudeatu du erosketa, bere izaera eta eginkizuna, arte garaikidearen euskal museoa izateko, sendotuz.

Zinemagintza

Zinemagintza sortzeko, ekoizteko eta hedatzeko programak indarrean jarraitu dute, itxialdiak horietako batzuk atzeratzea ekarri badu ere. Gidoigintzarako deialdian inoiz baino eskaera gehiago izan da, errodajeak eta grabaketak egin ezinean, profesional askok proiektuak sortzen eta ontzen jardun duelako. Ekoizpenerako eta garapenerako laguntzak egokitu egin behar izan dira, errodajeen eteteak, postproduzioak burutu ezinak, zinemaldien falta eta zine aretoen arazoak hartaratu. Guztira 2.664.000€ banatu dira programa horietan.

Zinema aretoek bizi izan dituzten arazoak arintzeko xedez *Zinemina* programa sortu da 2020an, EZA Eren (Euskadiko Zinema Aretoen Elkartearekin) lankidetzan, aretoetara ikusleak erakartzeko eta zinemazaleek aretoetara joateko konfiantza eta ohitura berreskuratzeko, aurreko urteetan indarrean egon den *Pasaia*riak *Zinemara* programa indartzuz eta egokituz.

Zineuskaditik euskal zinemagintza nazioartekotzeko kudeatzen diren programak ezin izan dira aurreikusitako bezala burutu. Programazioa etenda dago herri askotan, jaialdi asko ospatu ezinik geratu dira edo modu digitalean egin dituzte bai jaialdia bera bai merkatuak eta ekoizleen arteko topaketak. Hala ere, azoketara joateko diru-poltsak indartu egin dira eta inoiz baino merkatu gehiagotan parte hartu dute euskal ekoizleek: Berlin, Cannes; MIPCOM, MIPTV, Toronto, Ventana Sur...

Euskal zinemagintzak urrats handiak eman ditu beraz, aurretik

ere, nazioartean. Horren adibide dira *El Hoyore* arrakasta plataformetan, *Akelarre* bezalako nazioarteko koproduzioak edo *Ane* filmak Donostiako Zinemaldian izan duen aitortza, *La Trinchera Infinita* film luzea eta *Homeless Home* film laburra Oscarretarako hautatuak izatea.

Kimuak programak ere, aurrera jarraitu du. Euskal film laburren sustapena eta banaketa bultzatzeko antolatutako Kimuak programaren katalogoa eratu da 2020an ere. Sorta horrek Donostiako Zinemaldian ibilbideari ekin eta mundu osoko 170 jaialditan hartu du parte. Zinebi, Berlinale, BAFICI, Palm Springs, Seminci, Hong Kong, Bogoshorts, Black Canvas eta Varsoviako zinemaldietan erakutsi ostean, Tabakaleran eta Bilboko Arte Ederren Museoan izan zen ikusgai.

Emakume zinegileei hauspoa eta baliabideak emateko sortu zen NOKA programa Tabakalerak kudeatu du aurretik. Horrela Tabakalerak sortzaileei eskaintzen dizkien gainerako baliabideekin eta programekin josiago egonik, aberastu eta sendotu egin da. Bestalde, (H)emen elkarteari laguntza berezia bideratu zaio emakume zinemagileen artxiboa osatu eta eguneratzeko, eta ALICE programa (zinemagintzan emakumeen aldeko apustua egiteko) ontzeko.

Lan ildo horietan eta profesionalen trebakuntzan nahiz Creative Europe europar programaren informazio lanetan Europa Media Bulegoak burutu duen lanean eta Zinema Euskaraz bezalako programen garapenean, Zineuskadik, guztira, 1.095.000 € erabili ditu.

Azkenik, sorkuntzari eusteko laguntza berezien atalean, sortzaileek lanean jarraitzeko aukera izan zezaten, deialdi berezi bat egin da 7 film labur sortzeko, gero film luze bakarrean bil eta erakuts litekeena. Filmeetan itxialdiaren inguruko historiak lantzea eskatu da, lan guztien arteko lotura egon dadin, eta lanerako aukera izateaz gain, bizi izan dugun eta bizitzen jarraitzen dugun egoeraren lekukotza jasoa gera dadin. Zineuskadik kudeatu du deialdia, Sailburuordetzaren diru-laguntza bereziaz (236.000 €), Donostiako Zinemaldiaren, Zinebiren

eta EitBren lankidetzaz, egitasmoen hautaketarako eta filmeen gizarteratze egokia bermatzeko.

Literatura eta liburugintza

Liburugintzan, liburu-denden itxierak eta liburu azoken etenak ekarri ditu arazorik handienak. Durangoko Azoka bera on-line egin beharrak, datozen urteetan landu eta sakondu egin beharko diren bide berriak urratzera eramán baditu ere, jaitsiera ekarri du salmentetan. Euskadi barneko eta nazioarteko azokak ere bertan behera geratu dira. Salmentetan, gizarteratzean eta ikusgarritasunean kalte egin du horrek. Salmentaren jaitsiera arintzeko, Kultura Sailak erosketa berezia egin du, liburutegi publikoetatik bideratua, Euskadin argitaratutako liburuak erosteko, eta herrian herriko liburu-dendetan. 100.000 €ko kopuru berezia jarri da horretarako .

Idazleen jardunak, bere berezitasunagatik, ez du hainbesteko kolpea jaso. Baina idazte edo sortze lanaz gaineko jarduna –aurkezpen, hitzaldi, lantegi, topaketa, etab. –, gizarteratzean, ikusgarritasunean eta sortzaileen ekonomian eragin handia duena, etenda geratu da.

Sailari dagokionez, sorkuntza laguntzeko deialdiak –gazteentzako literatura testuak eta eleberrí laburrak– arazo gabe kudeatu dira. Berdin, komikiak eta album ilustratuak sortzeko deialdia. Gainera, sortzaileen jardunari eusteko lan-ildo berezien baitan, irudigileei lan aukerak emateko proiektu bat landu da. Egitasmoa Euskal Irudigileen Elkarteak kudeatu du, aurretik egin zuen hautaketa-prozesu batean oinarriturik, irudigile bakoitzari bina marrazki egiteko eskatuz, bere lanarengatik ordainketa zuzena jaso zezaten, eta argitalpena irudigintzaren esparruan son handikoa den argitaletxe batekin hitzartuz, liburuá, 3 hizkuntzatan aurkeztua, irudigintzaren lagin nazioartekoa gerta dadin. Liburutegien Sareak erosketa berezia egingo du, herritarren eskura egon dadin, eta edizioaren arriskuak arintzeko.

Euskadi Literatura Sariak ere erabaki dira, merezi bezala publikoki ospatzerik egon ez bada ere, konfirmatuz idazle emakumeek euskal literaturan duten garrantzia, erakarmen eta eragin gero eta handiagoa.

Kultura eta Sormen Industriak

Kultura eta Sormen Industriak (KSI) egituratzeko, sendotzeko eta berrikuntza sustatzeko programak 1.375.000 € izan ditu aurten ere. 2020a, KSI politiketan aro bat ixteko unea izan da eta aro berriaren oinarriak jartzekoa. **Creadis 3**, Euskadik lidertzen duen europar sarearen ebaluazioa egin da, burutzeaz bait dago. **(KSI) Berritzaile** programa ere XI. Legealdirako sortu zen. Ebaluazio oso bat egin da, haren eragina neurtzeko. Programetatik zerbitzutara pasatzea da, hain zuzen ere, **Basque District of Culture & Creativity (BDCC)** egitasmoak dakarren jauzirik nabarmenena. Kultura eta Sormenaren Euskal Barrutiaren egitasmoa urteko eginkizun nagusia izan da KSI politiketan, Kultura Sailak Innobasqueren lankidetzá izan du, eskainiko dituen zerbitzuak identifikatzeko eta antolatzeko. 2021an jarriko da abian. **KSI Atea** antolatu da aurten ere, kultur eta sormen industriak nazioartekotzeko lan-ildoá, Tabakaleraren eskutik. Datorren urtean BDCCren zerbitzuetara eboluzionatuko du programa honek ere.

KSletarako politikak antolatzeko, pilotaje talde bat dago antolatua, erakundeek, ikerketa zentroek, unibertsitateak eta enpresen ordezkariak osatua. Haren baitan, hainbat lan-talde sortu dira, gai konkretuei erantzuna emateko xedeaz. Horrela, I+G+b Kulturaren alorrean nola definitu, zehaztu eta ebaluatu aztertu da, kontzeptualizazioan eta adierazleak definitzen egindako lana nazioarteko foroan kontrastatzeko eta eztabaidatzeko 2021an, ezin izan baita 2020an egin. RIS3ren baitako beste alorrekin elkar lana bultzatzea izan du beste lan-talde batek xedea, ernalketa gurutzatua (*cross fertilization*) esaten zaion dinamika sektore honetan aplikatzeko. Aurreikusi baino motelago joan da, elkartzeko eragozpenak direla medio. Horrela, osasunaren

sektorearekin hurrengo urtean landuko da, eta 2020an elikadurako sektorearekin landu da gai hori.

Bestalde, Hezkuntza Saileko Unibersitate Sailburuordetzarekin lankidetzan, **KSIGunea** izeneko proiektua landu da, **Euskanpusekin**, zehazki, KSlen arteko eta unibertsitateetako fakultate desberdinen, ezagutza-adar desberdinen harremana eta elkar-eragina antolatzeko eta sendotzeko asmotan.

KSI politiken helburuak, garapena eta urte hauetako ibilbidea ezagutzera emateko, **KSÍak Euskadin** izeneko liburuá argitaratu du Jaurilaritzak.

Bereziki aipatu behar da pandemiak ekarritako egoerari erantzuteko, 2020ko udaberriean KSIBerritzaile programa eraldatu zela. **KSÍegokituz2020** unean uneko erantzun bat emateko antolatu zen, aurreko programak, izenak berak adierazten duenez, egoeraren larritasunari egokituaz. Enpresei eraldaketa digitalean, horrek dakarren negozio ereduá eta aldatetaren finantzazioan laguntza azkarra emateko, aholkularitza sistema bat antolatu zen, enpresei zuzenean eskainia. Programa horretatik dator **KSÍtech** lan ildoá, berrikuntza teknologikoan laguntzeko sortua, hurrengo urtean garatuko dena.

- KSI atea: 103 enpresa
- KSI berritzaile Egokituz2020: 56 enpresa

<https://www.euskadi.eus/ksi-berritzaile-programa-2020/web01-a2kulind/es/>

4.3./ KULTUR ESKAINNTZA

Herritarren kultur eskaintza ahalbidetzen duten gune guztiek, publiko zein pribatu, -museo, antzoki, liburutegi, liburu denda, musika eta zinema areto, etab.-erabat baldintzatuta ikusi dute pandemiagatik haien jarduna. Itxita egon behar izan dute luzaroan, eta zabaldu ahal izan direnean ere, aforoak mugatu egin behar izan dituzte. Klean eta plazan burutzen diren ekitaldiak bereziki urritu dira, osasun neurriak zaintzeko zailagoak direnez. Kale-giroarekin eta herriko jaiekin lotura berezia duten ekitaldiek eta jarduerak sufritu dute gehien jardunaren eten behartua.

Jendearen irisgarritasuna ere urritu behar izan da, herrien eta lurraldeen arteko eta Euskaditik kanpoko mugikortasuna ezinezkoak gertatu bait dira urtearen hilabete askotan. Nazioarteko joan etorriak etenda egon dira ia urte osoan. Horrek, nazioarteko jaialdietan, musika programazioan eta, batez ere, nazioarteko erakarmena duten museoetan, Bilboko Guggenheimen kasuan, esate baterako, eragin negatibo itzela izan du.

Ahalegin berezia egin dute, hala ere, Euskadiko kultur azpiegiturek, eta haien arduradun diren euskal erakundeek, beren jardunari nolabait eusteko, beren publikoak eta ohiko erabiltzaileak ez galtzeko eta kultur sortzaileei lan aukera berriak emateko.

Eremu digitala

Itxialdian, kulturaz gozatzeko aukera ia bakarria eremu digitalean aurkitu du gizarteak. Kultur azpiegiturek, oro har, ahalegin izugarria egin dute beren jardun digitala areagotzeko, hobetzeko eta garatzeko. Hurrengo urteetan gero eta eragin handiagoa izango duen bidea urratzen joan dira.

e-Liburutegia. Euskadiko Liburutegi Digitalak garrantzia berezia hartu du pandemiaren garaioan, lehenago

esana geratu den moduan. Itxialdia dekretatu orduko erabaki zuen Kultura Sailburuordetzak e-Liburutegiaren lan-taldea sendotzea, e-Liburutegiko bazkide izateko prozesua erraztea eta lizentzien erosketa areagotzea, eskaintza aberasteko. Gizartearen erantzuna oso positiboa izan da: 20.000 bazkide berri lortu ditu e-Liburutegiak, eta mailegatutako liburu eta filmak ia hirukoiztu egin dira. 167.000 liburu eta film mailegatu dira 2020an.

Eremu analogiko eta fisikoarekin batera, eremu digitalean kultur eskaintza gure kulturaz aberasteko premia garbi geratu da. e-Liburutegiak eskaintzen duen zerbitzua inoiz baino onuragarriagoa gertatu da. e-Liburutegia garatzen, aberasten eta zerbitzuz hornitzen jarraitu beharrak ez du beraz zalantzarik.

Orkestrak

Euskadiko Orkestra izan zen Europa guztian bere jardunera itzultzen lehena. Osasun neurriak zorrotz betez, grabaketak egin zituzten esparru digitalerako, gizartearekiko loturari euste arren. EITBrekin hitzarmena egin zuen bere lehen kontzertuak, publikorik gabe, telebistaz heda zitezten. Bere programazioa ere egokitu dute, behin jarduna posible gertatu denean, saioak ugalduz, formazio murriztagotara egokituz, baina abonatu guztiei programa osoa eskaintzeko konpromisoa betez.

Bai Euskadiko Orkestrak, bai Euskadiko Gazte Orkestrak, ahalegin handia egin dute eremu digitalaren aukerak sakontzeko, musikarien lanerako, kudeaketarako, beren jarduna etengabe ezagutarazteko, Interneten beren presentzia areagotzeko, euskal kultura digitalari musika edukien ekarpena egiteko.

Euskal Herriko Gazte Orkestra aro berri bat hastera zihoanean itxialdia etorri zen. Zuzendaritza berriak berehala hartu zituen egoerara egokitzeko neurriak, eta posible egin du aurtengo jardun osoa, irudiz, egikeraz eta kemenez indarberriturik. Audizioak* eta, beraz, hautaketak, internetez egin dira, egonaldiak

mugatu eta egokitu egin dira, baina hala ere, beren emanaldiak osatu dituzte hiru hiriburuetan, arrakasta handiz, musika-zuzendari berriaren batuta pean.

Museoak/Erakusketak

Euskadiko museoak ere gogor zigortu ditu pandemiak. Laneari jarraitu dute, nahiz publikoari itxita egon, beren jarduna eta lan-ildoak esparru digitalera egokitzen, batzuetan momentuko egoera bereziari ulean uneko erantzuna ematearren, eta bestetan museoaren esperientzia eta aurkikuntzarako bide digital berriak zabaltzen, gerorako ere emankorrak izango direnak.

Bestalde, pandemiaren aurkako neurri berezien artean, artistei laguntzeko, erosketa publiko berezia bideratu du Kultura Sailburuordetzak, museoek beren aurrekontuetan obra erosketarako dituzten funtsak osatzera zetorrena. Artistentzako arnas ekonomikoa izateaz gainera, bilduma publikorako egin dute elkarrekin erosketa. Auzolan hori euskal museoak Artearen Euskal Sistema garatzeko urrats bat gehiago da. 150.000 euro erabili ditu Eusko Jaurilaritzak berariaz horretarako. Guztira 24 euskal artisen 34 artelane eta edizio grafikoko 8 alek osatuko dute Artiumen gordeko den funtsa. Erosketak euskal museoaren arteko lankidetzara indartzeko ere balio izan du erosi beharreko lanak Artiumek, Bilboko Arte Ederren Museoak eta Tabakalerak erabaki dituztelako.

Museo pribatuek bizi izan dute egoerarik larriena, mugikortasun urriak eta turismoaren erabateko desagerpenak hartaraturik.

Museoetako langileen artean, azpi-kontratazio bidez dabilzanak sufritu dute gehien egoera, langabezian edota ERTEetan geratu bait dira. Kultur-langile hauen egoera kezagarria larritu egin du pandemiak.

Liburutegiak

Liburutegiak funtsezkoak dira kultura jendearengana heltzeko ahaleaginean. Oinarrizko zerbitzua eskaintzen dute eta gogor saiatu dira ahal bezain laster zabaltzen eta zerbitzuak egoera berriari egokitzen. Eusko Jaurlaritzak 900.000 euro erabili ditu liburuak erosteko eta beste 1.197.000 euro udalek. Kultura Sailak, bestetik, 680.000 euro jarri ditu udal liburutegiek teknologiak berriak erosi ditzaten eta hainbat jarduera burutu ditzaten.

Eusko Jaurlaritzatik, ahalegin berezia egin da Euskadiko liburutegiek egiten duten irakurketa eskaintza hobetzen, liburu erosketara berezia abiaraziz, bide batez euskal argitaratzaileei eta liburu-dendei onuragarri izan zekien, lehenago esan den bezala.

Kultur jaialdiak

Kultura Sailburuordetzak Euskadiko eremu guztian eragina duten edota ibilbide luzea eta aitortua duten arlo askotariko hainbat kultur jaialdi laguntzen ditu urtero. Jaialdi horien eragina eta ekarpena dudagabekoa da, baina horietako asko ezin izan dira ospatu. Urte benetan beltza izan da alderdi horretatik begiratuta, eta ospatu ahal izan direnei ia ezinezkoa gertatu zaie atzerriko sortzaileak ekartzea. Fokoa bertako sortzaileengan jarri dutelarik, aukera garrantzitsua izan da artista askorentzat testuinguru bereziotan beren lana aurkezteko eta hedatzeko. Hurrengo urteetan ere nazioarteko jaialdietan euskal sortzaileekiko arreta areagotzen joango dela espero daiteke.

Europa guztian nazioarteko jaialdiak bertan behera geratu diren honetan, Euskadin, ahalegin izugarria egin da horietako batzuei behintzat eusteko. ABAOren programazioari eustea ezinezkoa gertatu bada ere, urte guztian zabaltzen delako, denbora epe mugatuagoan gertatzen direnak (Donostiako Hamabostaldia, Donostiako Zinemaldia, Zinebi, etc.) ospatu egin dira, segurtasun protokolo guztiak betez.

Kultura Sailburuordetzaren eginkizun garrantzitsua izan da etengabeko

zubi-lana Osasun Saileko teknikari eta arduradunekin.

Jaialdiak ospatu ez direnean ere, edo murrizturik ospatu direnean, arreta handia eman dio Sailburuordetzak antolatzaileen gutxieneko beharrak zaintzeari, jaialdiak posible egiten dituzten lan-taldeak eta azpiegiturak erori ez zitezen. Diru-laguntza izendunak berdefinitu eta mantendu egin dira, beraz, jaialdietarako deialdia bezala.

Durangoko Azoka

Liburu eta diskoen azokak ezin ospatu izan dira 2020an, euskal produkzioaren ikusgarritasunean, gizarteratzean eta salmentan kalte handia eraginez. Euskal kulturak duen leihate handienak, berriz, **Durangoko Azokak**, eredu goitik behera aldatu du eta, topagune fisikoa izan ezinean, eremu digitalera ekarri du bere jarduna. Horrela, hitzaldi, aurkezpen, solasaldi, kontzertuak, bai eta salmenta bera ere, digitalean antolatu dira eta musika aurkezpenak Euskal Herriko herri eta areto desberdinetara hedatu dira. Horretarako, Azokak ohikoa duen diru-laguntzaz gain (150.000 €), beste 100.000€ bideratu dira *Zu non, han DA!* zirkuitoa ahalbidetzeko.

4.4./ MEMORIA BIZIA

Memoria zaintzea eta gizarteratzea, kultura biziaren parte bizi eta dinamikoa izan dadin, esparru publikoan dauden erakundeek dagokie nagusiki. Pandemiaren eraginez beren jarduna seriozki baldintzatua egon bada ere, ondarearen alorreko erakundeok lanean jarraitu dute.

Euskariana

Euskal kulturaren atari digital nagusia izango da Euskariana, Euskadin sortutakoa, ekoizitakoa, euskaraz sortutakoa edota euskal gaien ingurukoa biltzen eta gizartearen eskura jarriko dituen. Liburutegi Nazionalaren eredu jarraitzen du, beraz, eredu digitalean, Europeanaren ildotik

(Europako Liburutegi Digitala). e-Liburutegiarekin uztarturik, egungo kultur ekoizpeneko edukietara heltzeko aukera emango du, literaturan, musikan, antzerkian, dantzan, ondarean, artean...

Lantaldea osatu da 2020an, Euskarianaren oinarri teknologikoa hobetzeko, datuen eta edukien bilketa eta garbiketa egiteko, atariaren erabilgarritasun eroso diseinatzeke eta lankidetzara harremanak zabaltzeko.

2021rako aurreikusten da Euskariana abian egotea.

Museoen Zentroak

Museoen finantzazio beharrei adi egon da Museoen kudeaketarako lan-taldea, haien jardunerako diru ekarpenak egokitzen. EMSI Eren berrikuntzan jarraitu du lanean. Aurrera doa, baita ere Euskal Industria Ondarearen Bilduma Orconerako Pabilioietan (Barakaldon) kokatzeko egitasmoa.

Era berean, Arte erosketara berezia ere Museoen Zentrotik kudeatu da.

Bestalde Eusko Jaurlaritzaren arte ondarea katalogatze eta identifikatze lanak burutu dira. Horren baitan, Gure Arte Sarien bilduma zaindu da bereziki, 2021an Artium museoan lagatzeko asmoz, erabilgarri eta ikusgarri gerta dadin.

Artxibo Zerbitzuak

Euskadiko Artxibo Historikoaren (EAH) bildumak aberasten jarraitu du eta, beraz, Euskadiren memoriarako erakunde horren erreferentzialtasuna areagotzen. Bi dira aurtun jaso dituen artxibo garrantzitsuenak, Andres Irujo Ollo eta Ekin argitaletxearena alde batetik eta Diaz de Mendibil familia-funtsa bestetik. Dokumentuak jasotzeaz gain, funts horiek eta beste batzuk katalogatu eta digitalizatu dira.

2019an *Badator* web-orriaren azpiegitura aldatu zen, eta nabarmen hobetu eta handitu da haren erabilera 2020. urtean. Urtariletik apirilera ia %25a igo zen erabiltzaileen kopurua (2019an 18.454, 2020 22.441) eta gauza bera gertatu da erabiltzaileen lan-saioen

kopuruarekin: egunero, batz bestea 630 lan-saio egin dira; iaz, berriz, 450. Horrela, bai herritarrentzat, bai eta ere gure ikertzaile-komunitaterako ere, interes handiko zerbitzua dela frogatuz eman daiteke.

Agirien Kudeaketarako eta Agiritegien Lege-zirriborroak ere aurrera jarraitu du, Gobernantza eta Funtzio Publiko Sailarekin lankidetzan estuan.

Liburutegi Zerbitzuak

Euskadiko irakurketa Sare Publikoaren kudeaketa izan du, jakina, eginkizun nagusi. Pandemiaren hasieran liburutegiak itxi egin behar izan ziren, eta oraindik mugatuak dituzte haien eskaintzak. Egoera larri horrek nabarmen utzi du, XXI. mendean barrena, digitalizazioaren eta informatizazioaren alde hartutako erabakiaren egokitasuna, Internet eta e-Liburutegia izan direlako, aipatu dugunez, salbuespen egoerari aurre egiteko tresnarik garrantzitsuenak. Liburutegi sarearen ohizko funtzionamenduak, dena den, ez du hutsunerik izan, eta liburuzainen eta Osasun Sailaren artean zubi eginaz finkatu dira une bakoitzeko protokolo eta neurriak.

Laguntza-deialdiak ere normaltasunez zabaldu eta izapidetu dira. Lege Gordailuaren depositorekin birkopapenarekin jarraitu du Zerbitzuak. Liburutegi espezializatuen integrazioa ere indartu da, eta horien artean, Eusko Jaurlaritzak Gasteizko egoitzan bertan dituen Sailkako liburutegiena. Sarea eta saregintza sendotzeko eta hedatzeko ildoan, Gasteizko Arte eta Lanbide Eskolaren Liburutegiaren katalogazioaren bigarren zatia burutu da eta Eibarko Armagintza Eskolarena, hasi. Bilboko Maite Albiz Emakumeen Dokumentazio Zentroa ere sarean integratu da.

Irakurzaletasuna sustatzea eta sendotzea liburutegiaren eta, beraz, Liburutegi Zerbitzuaren eginkizun garrantzitsuenetakoa da. Abian zeuden hainbat ekimen bertan behera geratu dira, eta beste hainbat ekimen formatu digitalean asmatu

behar izan da. Liburutegiak bizi ibili dira egoerari erantzuten saiatzeko. Irakurzaletasuna sustatzeko diru-laguntzak mantendu egin dira eta, aldiberean, Euskadiko Liburutegia eta Irakurzaletasun Planaren oinarriak landu dira, nazio mailako plan bat irakurketa eta, bereziki, euskaraz irakurtzea sustatzeko eta sendotzeko ahaleginean jauzi kualitatibo bat izan daitekeelakoan. Batetik, EHUko aditu talde bati (Xabier Etxaniz Erle, Karla Fernández de Gamboa Vázquez eta Manu López Gaseni) ikerketa kualitatibo bat eskatu zaio (*"Euskadiko irakurketaren inguruko egoeraren azterketa. Plangintza baterako proposamenak."*) eta bestetik, SIADECO enpresari enkargatu zaio irakurzaletasuna sustatzeko Euskadin, lurraldez lurralde eta herriz herri egiten diren ekintzak bildu eta klasifikatu dituzan, egiten denaren ezagutzan, hobekuntzan, eta sustapenean sustraitu behar duelako hurrengo urteetarako plangintzak, Jaurlaritzarekin batera, gainerako erakundeak eta gizartea inplikatu beharko dituenak.

Euskal Kultura Ondarearen Zentroak

Euskal Kultura Ondarearen Zentroak 10 helburu nagusi finkatu zituen 2020. urterako eta pandemiaren ondorioz, denak ezin izan arren gauzatu, gehienak burutu dira.

- Euskal Kultura Ondarearen Lege berrian aurre-ikusten diren erregelamenduen garapena abian jarri da.
- Euskal Kultura Ondare Higiezia bere alor desberdinetan babesteko lanak sustatu dira, izendapenak berriki onartutako Euskal Kultura Ondarearen Legea ezartzen dituen baldintza eta kategorietara egokituz.
- Kultura ondarearen babesari dagokionez, EHUrekin lankidetzan jarraitu dugu, zehazki, Lurraldearen, Paisaiaren eta Ondarearen Katedrarekin, kultura ondarearen ezaugarri eta tipologiaren arabera, beratu baloratu eta ebaluatzeko eredu sistematizatu berriak egiteko.

- Kultura Ondarearen katalogoak eguneratu eta berriak landu dira, kultura ondasunen tipologia ezberdinak kontuan hartuta.
- Kultura ondare immaterialaren arloan aurreikusitako deialdia bertan behera utzi zen baina, Labayru Institutuarekin batera, Bizkaiko aratusteari buruzko azterketa bat landu da. Era berean, aurreko urteetan euskal dantzei buruz prestatutako 400 fitxak zuzendaritzaren web orrian eskegi dira.
- Donejakue Bidea kudeatu da, eragile ezberdinek osatutako Mahai Sektorialak koordinatuz. Pandemiak, dena den, ezinezkoa egin du sustapen lanetan sakontzea, nahiz eta gure web orria eguneratzeko aukera eman digun.
- Euskal kultura ondare barruan babestuta dauden ondasunak balioan jartzeko proiektuak eta, halaber, euskal kultura ondarea babesteko ikerketa-lan aplikatuak diruz lagundu dira. Horien artean lanik garrantzitsuenak Lekeitioko Murelaga ontziolaren azterketa da.
- Itsas-ondarearekin lotutako proiektuak diruz lagundu dira. Halaber, tartean dauden eragile publiko eta pribatuekin lanean jarraitu dugu, gure herriaren itsas-kultura mantendu eta berreskuratzen laguntzeko helburuarekin.
- Euskal Autonomia Erkidegoko kultura intereseko ondasunak zabaldu dira, web orrien bitartez. Tratamendu berezia izan dute ondare higiezinari lotutako eduki digitalak. INTEGRA sistemaren atal batzuk herritarren eta erakundeen eskura jarri dira. Euskal arkeologiaren alorrean erreferentea den Arkeoikuska izeneko argitalpena landu eta argitaratu eman da, bertan Euskal Autonomia Erkidegoko indusketa arkeologikoak zuzendu dituzten ikerlarien artikuluak bildu dira. Geroz eta oihartzun gehiago duen Ondarearen Europako Jardunaldien koordinazioa egin dugu berriro ere. Kultura Ondare Saria izeneko sariaren seigarren

edizioa bertan behera geratu da pandemiaren ondorioz. Saharako herriari arkeologia arloan orain arte eman zaion laguntza zientifikoari eutsi zaio, Eusko Jaurlaritzak Saharako herriarekin duen lankidetzaren politika zabalago batean kokatzen den laguntza, baina ohiko bi kanpainen ordean, urte hasieran egindakoa izan da aurtengo bakarra.

- Industria ondare higigarriaren gordailu zentroa bere egoitza berriari finkatzeko urratsak eman dira eta egokitze lanetan ari dira orain. Erakusketa-proiektu bat egin da Industria Ondare Higigarriaren Gordailuarentzat Orconerako tailerretan (Barakaldo), IOHLEeko (Industria Ondare eta Herri Laneko Euskal Elkarte) adituen lankidetzaren eta aholkuarekin.

Kultura Ondarearen Aholkularitza Juridikoko eta Jabetza Intelektualaren Erregistroko Zerbitzuak

Bi jarduera-eremu nagusi ditu: batetik, jabetza intelektualaren alorrean Euskal Autonomia Erkidegoak dituen eskumeneko zerbitzuak kudeatzea eta, bestetik, Kultura Ondarearen Zuzendaritzari aholkularitza juridikoa ematea.

Jabetza Intelektualaren Erregistroari dagozkion eskaera-ereduak eta dokumentazioa hobetu dira 2020. urtean zehar, eta www.euskadi.eus orriari txertatu dira. Erregistroari modu telematikoan sartzeko lanei jarraipena eman zaie. Guztira 1.811 lan jaso dira Erregistroan.

Aholkularitza Juridikoari dagokionez, Zuzendaritzak sustatutako lege aurreproiektuak eta garatzeko araudiak idazten parte hartu dute, kultura-ondasunen babesa arautzen duten dekretuak idatzi, diru-laguntzen deialdiak eta ebazpenak aztertu, Zuzendaritzako zerbitzu ezberdinek eskatutako txosten juridikoak egin eta zerbitzuaren jardura eremuan sartzen diren bestelako kontsulta juridikoei erantzuna eman zaie.

4.5./ GOBERNANTZA

Gobernantza partekatuak garrantzi berezia du Kultura Sailburuordetzarentzat, kultur eragileen zerbitzutan egon behar baitute haren politikek, eta beraz haiekiko ardura kidetasunean sakondu beharra dagoelako, eta kultur politiken ardura erakunde desberdinen artean banatuta dagoelako.

Hasieran esan den bezala, kultura gintzako profesionalen harremana etengabea izan da, alorrean bileretan gauzatu dena. Baina, era berean, Kulturaren Euskal Kontseilua hainbat aldiz bildu da, egoeraren jarraipena egiteko.

Kulturaren ardura daukagun erakundeen arteko lankidetzak eta koordinazioak garrantzia eta larritasun berezia hartu dute 2020an, guztien artean saiatzeko pandemiaren ondorio latzenak samurtzen eta kultura gintzaren biziraupena bermatzen. Koordinazioerako antolakuntza, **HAKOBA Kultura**, inoiz baino beharrezkoagoa eta eraginkorragoa gertatu da aurtur.

Kulturaren Euskal Kontseilua

Kontseilua da erakundeon eta kulturaren alorreko eragileen arteko koordinazio gune nagusia. **Kultura Auzolanean** egitasmoa lidertzen du Kontseiluak, gai garrantzitsu, zeharkako eta egingarrien zerrenda mugatu bat lantzeko, mugatua egingarritasunagatik, gai bakoitzean aurrerapausu zehatzak egin daitezten saiatuz. Bistan da Kultura Auzolanean ez dela 2020an nahi izango gureen beste garatu, biziraupenaren kezkak izan baitu lehentasun erabatekoa. Nahiz sortzaileak eta ekizleak, nahiz kultur antolamendu eta egiturak, beren jardunari eusten, beren jarduteko erak egokitzen, eta osasun protokoloetara moldatzen aritu dira buru-belarri. Baina Kultura Auzolanean zeuden gaiek ez dute garrantzirik galdu, are gehiago, ezinbesteko bihurtu dira.

Legealdi honetarako aukeratu ziren gaiak hauek ziren:

Genero berdintasuna kulturari:

Sortzaile eta kultur gile emakumezkoen bazterketa eta ikusezintasuna alorrean aztertzeko, baloratzeko eta egoera iraultzeko ekinbideak proposatzeko lan-ildoak da hau. Aurtur egindako azterketen kontrasteak egin dira, eta zinemagintzan, gorago adierazi bezala, (H)emen elkartearekin hainbat egitasmotan sakondu da.

Bestalde, museoetan emakumeen presentzia bermatzeko eta ikustarazteko proposamenak eta erabaki zehatzak HAKOBAren esparruan geratu ziren.

Kultura gintzaren antolakuntza eta interlokuzioa hobetzea:

Legealdi guztian aritu gara denok ere gai honen inguruan lanean. EHMBAren sendotzea eredu garri izan da, baina gainerakoetan ez da urrats nabarmengarririk lortu kultura gintzaren antolaketa hobetzeko, eta antolamendurik ez duten alorrean (arte, zaharberritzea, ondarea... etab.) ordezkariak antolatzeko. 2020ko egoera larriak are beharrezkoagoa egiten du artikulazio hori hobetzea eta interlokuzioan sakontzea, elkarrekin elkarrekin edo plataformak ezinbestekoak izan eta izango direlako egoera benetan zail hauetan eta ez bakarrik Kultura Sailburuordetzari begira, baizik eta gainerako Sailei begira, baita ere (Ogasuna, Garapen Ekonomikoa, Lan Saila, etab.).

Aipagarria da Arte Eszenikoek eta Musikak RESET izeneko plataforma sortu izana, Jaurlaritzaren eta sektorearen arteko komunikazioa asko erraztu eta bizkortu duena pandemiaren unerik larrienenetan.

Sortzaileen lan-baldintzen duintasuna arte bisualetan:

Sortzaileen lan baldintzak hobetzeko konpromisoak Jaurlaritzarentzat daukan garrantzia gai hau XI. Legealdirako Kultura Auzolanean egitasmoan sartu izana adierazten du. 2020ak ekarri duen egoeran are garrantzitsuagoa da, eta presazkoa. Gaia landuagoa zegoenez ikusizko artean alorrean, Euskadiko museoetan eta artean eragile diren lankidetzaz arau multzo garbi bat lortu nahi zen. Ordea, sortzaileen eta arte-erakundeen arteko harremana hain da anitza eta hainbeste ñabardura ditu, ez dela erraza gertatu arautzea. Hurrengo

legealdirako, sortzaileen lan baldintzak hobetzea eta arautzea lehentasunezko gaia bihurtu denez, indar berezia egin beharko da lantalde hauetatik ondorio eta erabaki zehatzak sor daitezen.

Kulturaren presentzia komunikabideetan

Kultura gizarteratzeko eta euskal kulturaren ikusgarritasuna areagotzeko ezinbestezkoa dira komunikabideak. Kultura nola jasotzen eta nola komunikatzen duten aztertzea, kulturak Euskadiko hedabideetan nolako eta zenbateko presentzia duen aztertzea zen lehen urratsa, 2019an abiarazi zen landa-lan baten bidez, egoeraren ezagutza zehatzetik abiatu ahal izateko hobekuntzak eta ekimenak erabakitzeko orduan. Bistan da, 2020. urtean ezin izan dela horretan aurreratu, egoera anomaloan bizi izan garelako erabat, eta kulturak hedabideetan izan duen presentzia (garrantzitsua) COVID19arekin lotua egon delako, ezinbestean.

Irakurketa sustatzeko plana: Gai garrantzitsu honetan tarteko gara Kultura Sailburuordetza, Hizkuntza Politika Sailburuordetza eta Hezkuntza Saila, eta tarteko dira, jakina, argitaletxeak, idazleen elkarteak, baina baita ere Foru Aldundiak eta Udalak, beraien ardurapekoak bait dira, azken hauenak batez ere, herrian herriko liburutegiak eta kultur etxeak. Ahalegin bateratua eskatzen du, beraz, Irakurketa Sustatzeko Planak eta, oinarrian, egoeraren ezagutza zehatza: Zer egiten da? Norentzat? Nola? Zein ondorioekin? Euskadin egiten den guztiaren mapatzea erabaki zen lehen urrats bezala eta horretan jardun du ikerketa-etxe batek. Guztia atzeratu du pandemiak, baina 2021ean helduko zaio gaiari, indar berriz.

Kulturgintzaren egitura profesionalak

Kulturgintza profesionalaren alorrez alorreko elkarteek laguntza izenduna jaso ohi dute beren aktibitatea garatu ahal izateko. Nahiz zailtasun nabarmenak agertu diren beren egitasmoak burutzeko, diru-laguntzak oso osorik banatu dira, egitura profesionalari eusteko, eta kulturgileen antolakuntza eta ordezkartza ez zitezen erori, pandemiaren ondorioz.

Diru-laguntzaren xedea jendaurreko aktibitatea edo nazioartekotzerako programak diren kasuetan ere, diru-laguntzari eutsi egin zaio, sektoreari laguntzeko eta sektorea egituratzeko xedeei eutsi ahal izan ziezaioten.

Nabarmenago geratu da pandemia egoeran elkarte sendo eta zabalen premia, eta Euskal Herriko Musika Bulegoa (EHMBE) eredugarri gertatu da, bere baitan hartzen baititu musikaren balore kate guztiko elkarteak (sortzaileak, interpreteak, musika editoreak, aretoak, etab.). Ikuspegi honetatik, zentzu osoa hartu du azken legealdian.

Kulturaren Euskal Behatokia

2020ak eginkizun bereziak ekarri dizkio Kulturaren Euskal Behatokiari. Hasieran (4.1) esan den bezala, Krisiaren Behatoki bilakatu zen, egoeraren inguruko datu zehatz eta bateratuak lortzeko eta eskaintzeko.

Krisiaren behatokia.

https://www.kultura.ejgv.euskadi.eus/r46-19803/eu/contenidos/informacion/keb_krisialdiaren_behatokia/eu_def/index.shtml

Eginkizun berezietan gain, Behatokiak bere ohiko zereginekin jarraitu du, estatistika-lanak, azterketa kualitatiboak eta panelak lantzen, alegia. Sakontzen joan da, bestalde, bere eremua zabaltzeko ahaleginean, kultura ondareari begiraturaz, batetik, eta bere estatistiketan KSlen eremu zabala aztertuz, bestetik.

Parte hartze kulturala Euskal Herrian: moduak, arazoak eta inpaktua.

https://www.kultura.ejgv.euskadi.eus/r46-19803/eu/contenidos/informacion/keb_parte_hartze_kultura_2020/eu_def/index.shtml

Artistentzako eta kultura-arloko profesionalentzako etorkizuneko aukerak.

https://www.kultura.ejgv.euskadi.eus/r46-19803/eu/contenidos/informacion/keb_artista_etorkizuneko_2020/eu_def/index.shtml

Karrera artistikoen profesionalizazioa.

https://www.kultura.ejgv.euskadi.eus/r46-19803/eu/contenidos/informacion/keb_karrera_artistikoa_2020/eu_def/index.shtml

Finantzatzeka eta gastu publikoa EAEn.

https://www.kultura.ejgv.euskadi.eus/r46-19123/eu/contenidos/estadistica/finantzaketa/eu_finantza/finantzaketa.html

EAEko argitalpenei buruzko XXV. Txostena. Barne merkataritza 2019.

<https://www.kultura.ejgv.euskadi.eus/euskal-autonomia-erkidegoko-argitalpenei-buruzko-xxv-txostena-barne-merkataritza-2019/r46-19123/eu/>

Euskarazko argitalpenei buruzko XV. Txostena 2019.

<https://www.kultura.ejgv.euskadi.eus/euskarazko-argitalpenei-buruzko-xv-txostena-2019/r46-19123/eu/>

5/

Euskara eta Genero Berdintasuna

Hizkuntza eta genero berdintasuna garrantzi handiko zehar-lerroak dira Sailburuordetzaren politiketan. Zehar-lerro dira lan ildo guztietan eragiten dutelako eta ez dutelako sortzen, ez bata ez besteak, esparru bereziturik: euskaraz sortutakoak, euskaraz eskainitakoak, euskarazko kulturaren memoria eta transmisioak Eusko Jaurlaritzaren kultura politiken muinean daude, alor guztietan eta aspektu guztietan hartzen dira kontuan. Emakume sortzaileak behar ditugu kulturaren panorama guztian eta, ahal bada, erdigunean; euskaraz sortutakoa gure herriaren kultur bizitzaren parte da, parte gero eta biziagoa, erakargarriagoa, bikainagoa eta, ahal den neurrian, gero eta zentralagoa bilaka dadin lortu behar dugu.

Sustatzen ditugu, jakina, zirkuito eta sorgune bereziak, hain zuzen ere beharrezkoak direlako eta komunitateak trinkotu behar direlako, kultura euskaraz sortzeak eta bizitzeak, edota emakumezkoak kulturaren eragile eta sortzaile behar-beharrezkoak direla frogatzeak hori eskatzen duelako maiz. Baina erronka da, astiro bada ere, sortzaileen eta zaleen bultzadaz eta kemenaz, euskarazko kultur bizitza eta emakumeen ekarpena gure gizartearen eta gure kulturgintzaren erdigunera etor daitezen. Kultura, gizartea bera bezala, ezin da ulertu emakumeen ekarpenik gabe; gure herriaren eta gure herriarentzako kultura ezin da ulertu euskararik gabe.

